AIARALDEA hemen



MENDI ERRESKATEAK:
Prestakuntza, prebentzio eta formakuntzarekin ekidin daitekeen gaitza 8-11 or.

AP-68 ERREPIDEA:
Plataforma sortu dute sarbidea dohainik izatea eskatzeko 6-7 or.



“Kultur erresistentzia mugimendu baten parte gara ipuin kontalariak”



AMURRIO 2
Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteak, sententziaren zain
Hasierako kartzela zigor eskaera bera mantendu du fiskalak

AMURRIO 3
Amurrio Trail Taldeko kideek jasoko dute Urrezko Guk Saria
Martxoaren 13an izango da aitortza egiteko ekitaldia, Amurrio Antzokian

KULTURA 20-21
Diskoa grabatuko du Nerea Quincocesek Kuttune taldearekin
‘Crowdfunding’ kanpaina abiatu dute grabaketa finantzatzeko

HISTORIA 22-23
Gorobel mendilerroko abeltzaintza, 60 urte baino gehiagoko gatazka
Urduñako eta Villalba de Losaren arteko auzia azaldu du Jesus Mari Garayo soziologoak

KIROLA 26-27
Kirola eta berdintasuna izan zituzten hizpide Okondon
Olaia Otaola eta Geraxane Ussiak arazo eta erronkak azaldu zituzten hitzaldian

herriz herri

Amurrio

Fiskaltzak Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen aurkako zigor eskaera mantendu du: 8 urteko espetxealdia eta 7 urteko zaintzapeko askatasuna. Angela Murillo Auzitegi Nazionaleko epaileari dagokio orain erabakia hartzea.

Epaiaren zain daude Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteak



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**









Mobilizazio ugari egin dira Amurrion eta Gasteizen epaiketa salatzeko. **Aiaraldea.eus, Hala Bedi eta Ahotsa.info**

Urtarrilaren 21 eta 22an egin zen Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen aurkako epaiketa Madrilgo Auzitegi Nazionalean. Bi gazteak 2019an atxilotu zituen Ertzaintzak, Arabako Dura herrian topatutako material lehergarria zuen bidoi batekin erlazionatutako operazioan, eta sei hilabete egin zituzten prebentziozko espetxealdian.

Jose Perals izan da auzia aurrera eraman duen fiskala, Altsasuko gazteen auzian aritu zen berdina.

Barbado eta Zelaiaren deklarazioekin hasi zen epaiketaren lehenengo saioa. Bi auzipetuek abokatuen galderei erantzun zieten soilik.

Ezker Abertzaleko militante gisa aldarrikatu zuen bere burua Barbadok bertan, eta bere egin zuen erakunde horren estrategia politikoa. Zentzu horretan, Ertzaintzak bere etxeko miaketan atzemandako dokumentuak bere militantzia politikoarekin lotutakoak zirela azaldu zuen gazteak.

Instrukzioan parte hartu zuten ertzainek ere hartu zuten hitza epaiketaren lehenengo egunean, 2019ko miaketa horietan aurkitutakoa aletzeko helburuarekin. Aurkeztutako dokumentuen artean; Julen Ibarrola gazteari babesa adierazteko dinamikaren logoa eta Alfredo Remirez preso amurrioarraren senideek, espetxera bisitan zihoazela, jasandako kotxe istripuari erreferentzia egiten zion kartela zeuden.

Ezin izan zuten, ordea, miaketa horietan aurkitutakoaren eta Dura herriko "zuloaren" arteko inolako erlaziorik frogatu. Horrela aitortu zuten Ertzaintzako agenteek ere.

Polizien jarraipena ere salatu zuen Amurrioko gazteak: "Urte luzez jasan ditut kaleko polizien jarraipenak eta behin baino gehiagotan salatu ditut, baina salaketa horiek ez dira inoiz inora iritsi". Ertzainek baieztatu egin zuten Polizia Nazionala eta Guardia Zibila izan zirela Barbadori jarraipena egiten aritutakoak.

Peritu judizialen deklarazioen txanda iritsi zen bigarren saioan. Ertzaintzak instrukzio fasean topatutako ebidentzien gainean egindako azterketaren nondik norakoak azaldu zituzten epailaren aurrean.

Zigor eskaera mantentzea

Behin lekuko, ertzain eta perituen adierazpenak entzunda, hasierako zigor eskaera mantentzea erabaki zuen fiskalak: 8 urteko espetxe-zigorra, 7 urteko zaintzapeko askatasuna eta 18 urteko inhabilitazioa.

ANkerkeriari Stop plataformak "absoluzioa ez den beste epairik" ez duela onartuko adierazi du, eta mobilizazio gehiago iragarri ditu

Defentsa, bere aldetik, bi gazteen absoluzioaren alde berretsi zen, Duran aurkitutako bidoiaren eta bi gazteen arteko loturarik frogatu ez zela argudiatuta. "Hainbat gertakari isolatuekin eta auzipetuen militantzia politikoarekin koktail bat egin da txosten juridikoa osatzeko", adierazi zuen Leopoldo Barañanok, Barbadoren abokatuak.

Pilota, epailearen teilatuan

Bi aldeak entzunda, epaiaren zain geratu dira bi gazteak. Erabakia, orain, Angela Murillo Auzitegi Nazionaleko epaile ezagunari dagokio. Aurreikuspenen arabera, hurrengo asteetan egingo da sententzia publiko.

"Bermerik gabeko epaiketa"

ANkerkeriari Stop plataformak, Auzitegi Nazionalean egindakoa "inolako bermerik gabeko epaiketa politikoa" izan dela salatu zuten urtarrilaren 22an Amurrion egindako manifestazio jendetsuan. Ildo beretik, absoluzioa ez den beste epairik onartuko ez dutela azpimarratu zuten, eta adi egoteko eskatu zieten herritarrei, "hurrengo egun eta asteetan zabaldu daitezkeen deialdi berriei begira".

Amurrio

Amurrio Trail Taldeak jasoko du Urrezko Guk saria aurten



Babioko igoera da taldeak antolatzen duen ekintzetako bat. **Amurrio Trail Taldea**

Testua
Txabi Alvarrado Bañares

Martxoaren 13an egingo da saria emateko gala, osasun egoerak ahalbidetzen badu

Amurrio Trail Taldeak jasoko du Urrezko Guk saria aurten. Martxoaren 13an egingo dute aitortza egiteko ekitaldia, Amurrio Antzokian. Udalak nabarmendu du erabakia "adostasunez" hartu dela. Tokiko erakundeak zehaztu duenez, bi arrazoi nagusigatik lortuko du taldeak saria: kirol munduan egiten duen lanagatik eta burutu dituen elkartasun ekimenengatik, konfinamendu garaian etxez etxeko laguntza sarea bultzatu zuelako taldeak.

"Kirol arloan, Amurrio Trail Taldeak 8 urte baino gehiago daramatza batazbeste 400 izen-emate dituen Amurrio Trail Lasterketa antolatzen", azpimarratu du udalak. "Euskadiko lehiaketen barruan lekua egitea lortu du. Batzuetan Euskal Herriko trail txapelketetarako baliozkoa izan da".

Euskal Mendizaletasunaren Gala ere prestatu zuen iaz taldeak, pandemiaren aurretik Antzokian ospatu zena.

Horrez gain, urtero Gabonen testuinguruan antolatutako Babioko igoera eta Babio Non-Stop ekimen solidarioa ere aipatu dituzte oharrean, beste bi adibide gisa. "Ezohiko Gabon jai hauetan ere Olentzeroren laguntzaile leialak izan dira, eta mendira igotzera animatu dute, Amurrioko umeek nahi zutena jasotzen zuen gutuna bertan utzi eta ikazkinaren kartoizko irudiarekin argazkia ateratzeko".

AMURRIO TRAIL

AMURRIO TRAIL TALDEA

Eskerrik asko!

Hau ez da Amurrio Trail Taldeari zuzendutako errekonozimendu soila, zuei guztiei egindako aitortza baizik! Gure ibilbide laburrean aurrera egin ahal izateko laguntza ekonomikoa eman diguten enpresa eta erakunde guztiei! Lehiatu garen tokietan gure kamiseta defendatu duen taldeko kide bakoitzari! Amurrio Trail Lasterketaren 8 edizioa ospatzea ahalbidetu duten bolondres guztiei! "Montes Solidarios" elkartearekin eta Olentzerorekin batera abenduaren 23 eta 24an, egun horiek are hunkigarri eta solidarioagoak izan daitezen, Babioko gailurrera lagundu gaituzuenoi. Konfinamenduko une gogorretan behar zutenei laguntza emateko prest egon zinetenoi. Arratsaldeko zortzietan, kalejiran, balkoietan zain zeudetenoi, hurrengo egunean ateratzera animatzen gintuzten irribarre eta txaloak eskainiz! Egoera zaila iraultzen saiatzeko, 2020an nork bere harri-koskorra ekartzen ahalegindu zaretenoi! Honek Amurriorekin eta Amurrioren alde lanean jarraitzeko energia bulkada izugarria suposatzen du. Aupa zuek eta Gora Amurrio!





herriz herri

Amurrio

Merkatu zaharra eta Landazuri etxea birgaituko dituzte Foru Planari esker, besteak beste



Merkatu zaharra birgaitu eta zentro soziokulturala atonduko dute. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurriok 2.912.567,77 euroko inbertsioa jasoko du Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen planari esker. Laguntza ekonomiko hori herriko entitateen artean banatuko da hainbat proiektu egikaritzeko.

Udalak 864.477 euroko laguntza izango du, herrigunean bi proiektu aurrera ateratzeko: merkatu zaharreko zentro soziokulturala eta Landazuri Etxeko eguneko arretarako zentroa.

Merkatu zaharra

Aldundiaren planaren bitartez, 288.159,04 euroko dirulaguntza eskuratuko du udalak 894.770,58 euroko kostua izango duen proiektua gauzatzeko. Foru kaleko 9. zenbakian dagoen merkatu zaharra birgaitu eta zentro soziokulturala atonduko dute bertan.Erantsi dutenez, erabilera anitzeko espazioa izango da, azokak, erakusketak, kontzertuak edota bestelako ekintzak egiteko azpiegitura eskainiko duena.

Edifizioa 1976. urtean eraiki zen merkatu bezala erabiltzeko helburuarekin, baina urteak daramatza jardueraik gabe.

Landazuri Etxea

Obra eta Zerbitzuen Foru planak Landazuri Etxean eguneko arretarako landa zentro bat egikaritzea du helburu ere. Horretarako, 1.067.620,30 euroko aurrekontua osatu du udalak eta Foru Aldundiak 576.318,08 euroko diru-laguntza bideratuko du.

Merkatu Zaharrak bezala, mendiko kaleko 19. zenbakian kokatutako Landazuri Etxeak 20 urte baino gehiago eman ditu inolako erabilerarik gabe.

Etxearen jabeek dohaintzan eman zioten udalari bertan pertsona nagusientzako espazio bat egiteko xedearekin. Amurrioko Gazte Asanbladak 2012an okupatu zuen eraikina gaztetxe bihurtzeko asmoz, baina berehala desalojatu zuten.

Obrak

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren baitako gainerako diru partidak Baranbio, Larrinbe, Lekamaña, Lezama eta Tertangako Batzar Administratiboetara bideratuko dira.

Baranbion, esaterako, urhornidurako sarea berrituko dute, eta Larrinben elizako plazaren urbanizazioa gauzatzeko aurreproiektua jarriko dute abian.

Lekamañan eta Tertangan, berriz, saneamendu sareko konexioak hobetuko dituzte, hauek handitu eta Urduñako ur-fekalen araztegiekin lotzeko. Azkenik, Lezaman, horniketa eta saneamendu sareak aldatuko dituzte, Larrakon eta Latatun kokatutako araztegietan berrikuntzak egitearekin batera.

Plataforma sortu dute, eukaliptoaren ingurumen kalteak bistaratzeko

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Uhandre Amurrioko Baso Biziak plataforma eratu dute Amurrion. Facebook taldea zabaldu dute, eta bertan azaldu dituzte ekimenaren helburuak: "Uhandre Amurrioko basoak bizirik plataforma eukaliptoaren kontrolik gabeko hedapenak lurraldean sortzen dituen ingurumen arazoei buruz hausnartu eta jardun nahi duen herritarren ekimena da".

Udalari eskaera

Batetik, manifestua plazaratu dute "mendi anitzen alde". Amurrioko Udalari, berriz, hainbat eskaera egin dizkio plataforma sortu berriak, "eukalipto-landaketen ingurumen kaltearen ebidentzia zientifikoan oinarrituta". Hau da eskatu dutena, besteak beste: Amurrioko udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokor berrian berrian eukaliptoak jartzea debekatzea udalerri osoan. Nabarmendu dutenez, eukaliptoak landatzeko udal-debekua ez da mendien arloko legediaren aurkakoa. "Hala adierazten du Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak agiri publikoetan. Beraz, ezin da argudiatu debeku hori zehazteko udal-eskumenik ez dagoenik". Sare sozialetan iragarriko dituzte euren hurrengo jarduerak.

Urduña

Lorategia atonduko dute harresiaren eta Andra Mari elizaren gunean



Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du udalak obra egiteko. **Urduñako Udala**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Obrak egingo ditu Urduñako Udalak harresiaren eta Andra Mari elizaren gunean. Zonaldea lorategi publiko bihurtzea izango da helburua. Tokiko erakundeak 100.159 euroko diru-laguntza eskatu zion horretarako Eusko Jaurlaritzari, eta honek 50.156 euro emango dizkio azkenean, hainbat urtetan zehar. "Hainbat lan burutuko dira", zehaztu du udalak, "harresiaren goialdeko eremua garbitu eta zementuarekin babestuko da, harresiaren aldamenetan dauden teilatuak garbitu eta teila berriak jarriko dituzte; eta, azkenik, Andra Mari elizaren eta harresiaren arteko zonaldea lorategi publiko bihurtuko da, bertan beste motatako ekitaldiak eskaini ahal izateko".

Okondo

Kiroldegia eraikiko dute Okondon, Foru Aldundiaren diru-laguntzari esker

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

2021ean Okondoko kiroldegia eraikitzeko diru-laguntza jaso du Udalak. Arabako Foru Aldundiak plazaratu berri du ebazpena, eta 575.773€ bideratuko dira udalerrian kirol azpiegitura atontzera.

Eraikinaren aurrekontua 860.000 eurokoa da. Berez, futbol zelaia dagoen ingurua hobetzea da asmoa, aldagela, gimnasio eta biltoki batekin. Gainera, padel pista bat jarriko dute.

Jon Escuza alkateak Aiaraldea Komunikabideari azaldu dionez, gastuaren %70 hartuko du bere gain Foru Aldundiak: "Oraindik goiz da esateko noiz bukatuko diren lanak". 2023 arte izango dute epea obra egikaritzeko. Orain, proiektuaren erredakzioa izango da erronka, eta beste lizitazio batean helduko diote exekuzioari, enpresen eskaintzak aztertu ostean.

Alkateak erantsi duenez, egungo eraikina biltoki gisa erabiltzen da orain, "eta hobekuntzak behar ditu". Horrez gain, kirol elkarteak elkartzeko gune izatea ere nahi dute, "euren proiektuak garatzeko".

Laudio

Otsailean esleituko dira Altzarrateko zubiko obrak



Agerraldia egin zuten udalak eta URAk zubian. **Laudioko Udala**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Agerraldia egin dute Laudioko Udalak eta URA agentziak, herrian egingo dituzten obren berri emateko.Iragarri dutenez, otsailean esleituko dira Altzarrateko zubiaren egokitzapen hidraulikorako obrak, 1.828.210 euroko aurrekontuarekin eta 7 hilabeteko egikaritze-epearekin. Zubi berri bat eraikitzea izango da obren xedea, egun dagoela baino zabalera handiagoa izango duena eta uholdeetarako prestatuago egongo dena.

San Juan errekako obrak

Horrez gain, URAk jakinarazi du martxoan amaituko dela San Juan errekako estaldura kentzeko eta ibilgua egokitzeko proiektua.

Artziniega

2,1 milioi euroko aurrekontu zirriborroa aurkeztu du udalak

Testua
Txabi Alvarado Bañares



Ur-hornidurako hodi orokorra berritu nahi dute, besteak beste. **Aiaraldea.eus**

2.138.047,08 euroko aurrekontu zirriborroa prestatu du Artziniegako udal-gobernuak, iazkoa baino 84.757,07 euro txikiagoa. Alkateak azaldu duenez, Aldunditik datorren dirua 85.000 eurotan murriztu delako da txikiagoa aurtengo aurreikuspen ekonomikoa. Gauzak hala, gastu batzuk "egokitu" behar izan dituztela aurreratu du gobernuburuak. Pandemiaren eraginez egin ezingo diren zenbait jardueretarako dirua kendu dute, beste gastu batzuetarako dirua lehenesteko.

Jaietakoa da murriztu duten partidetako bat, "baina aurrerago 38.000 eurora iritsi arte osatuko da", Joseba Vivancok azaldu duenez.

Gizarte arloan, aldiz, diru gehiago inbertituko dute, gizarte-langileek bi lanaldi eta erdi izateko. "Dedikazio hori abuztutik dago, ordura arte lanaldi eta erdi baino ez zegoelako. Halaber, 3.000 euroko partida berri bat ezarri dugu gizarte-larrialdietarako, laguntzen premiazko kasuetarako. Gizarte arloan egiten ditugun bi apustu garrantzitsu direla uste dugu; bereziki lehenengoa, herritarrei zerbitzu hobea ematen diegulako behar oso garrantzitsu batean".

Udal arkitekto eta aparejadorearen dedikazioa astean bi ordu handitzea ere aurreikusi dute aurrekontu zirriborroan. Horrenbestez, aurrerantzean, bi egunetan zazpi ordu egingo ditu lan behargin horrek. "Proiektu eta obra garrantzitsuak datoz, eta lanaldiaren igoera txiki hori beharrezkoa da, jendearen beharrizan partikularrei hobeto erantzun ahal izateko".

Beste partida batzuk ere handitu nahi dituzte: berdintasunarena, euskararena, obra eta konponketena zein turismo eta merkataritza jardueren sustapenarena. "Kulturari dagokionez, urteko partidari eutsiko diogu, bai eta kultur diru-laguntzei ere", erantsi du Artziniegako gobernuburuak.

Obrak

Vivanvok azpimarratu du aurtengoa "urte garrantzitsua" izango dela, "obrei dagokionez".

Ur-hornidurako hodi orokorra berritu eta Gordelizerainoko kanalizazioa eraikiko dute, "Barratxi zubitik Bentara doan bideko Arrazuriako Presa eta San Antonio arteko lehen zatia hastearekin batera".

Dorrea Hotela egokitzeko obrekin ere jarraitu nahi du tokiko erakundeak, eta Goienkalen hainbat lan egitea aurreikusi dute, "irisgarritasuna hobetzeko".

Horrez gain, Kultur Etxea eraberritzeko proiektua esleituko dute, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria idaztea ere dute buruan. "Ez ditugu ahaztu nahi jarduera txikiak, hala nola kirol-eremuan kalistenia tresnak jartzea edo hilerrian hobekuntzak egiten jarraitzea. Ezta mendien arloko jardueretak ere: lau isurbide berri gehitzea, Garateko itxiera soiltzea, edo Peñalban babesak jartzea kasu", gaineratu du Vivancok.

Inbertsioez gain, hainbat ezabaida burutu beharko dituzte, aurreikusi dutenez. Urarenkudeaketaren gaiari heldu beharko diote, Aiaraldeko Ur Patzuergoa disolbatu delako. Beste erronka batzuk ere zehaztu dituzte: "Antzinako Azoka egin nahi dugun eztabaidatzea, zuen ekarpenekin kirol-eremuak etorkizunean nolakoa izan beharko lukeen diseinatzea, herrian euskararen sustapena dinamizatzea lortzea, Artziniegako turismo-eskaintzan lanean jarraitzea... erronka asko gainditu behar dira".

EAJren emendakinak

Artziniegako EAJk 10 proposamen egin ditu 2021eko udal aurrekontuetan txertatzeko. Herriko ostalaritza eta komertzioa sustatzeko plana diseinatzea, kaleetako garbiketa eta desinfekzioa areagotzea, eta mendira eta birpopulazio proiektuetara diru gehiago bideratzea eskatu dute, besteak beste.

Onarpena, otsailean

Urtarrilean jaso dituzte herritarren ekarpenak, eta otsaileko Udal Osoko Bilkuran aurkeztu nahi dituzte behin betiko aurrekontuak, udal-gobernuko kideen hitzetan. Alabaina, EH Bilduk gehiengo absolutua duenez, ez du arazorik izango proposamena aurrera ateratzeko.

erreportajea

AP-68 dohainik izateko plataforma eta dinamikak, abian



AP68 autopista erabiltzeagatik bidesari sistema ezberdina dago arabar zein bizkaitarrentzat. Argazkian, Orozkoko bidesaria. **Aiaraldea.eus**

2019ko abendutik Diputazioen esku dago AP-68 errepidearen kudeaketa. Bizkaian A-68 erabiltzeko tarifa jarri zuten abian, baina Araban Laudio-Gasteiz tartea soilik dago "babestua" aiaraldearrentzat. Horren harira, AP-68 dohainik plataforma sortu dute zenbait herritarrek, doakotasuna bermatzeko.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Zenbat ordaintzen dute Aiaraldetik Bilbo edo Gasteizera mugitu behar duten herritarrek AP-68 erabiltzeagatik?

Kepa Alaña AP-68 dohainik Plataformako kideak sakon aztertu ditu datuak, Areta eta Orozkoko bidesarienak batik bat. Bi sarbide horiez gain, Ziorragan du kokatuta sartu-irten gunea autopistak bailaran.

Espainiar estatuko laugarren errepide garestiena da Areta edo Laudiotik Bilbora doana. "10 kilometro dira Aretatik Bilborako tartea, 12 Orozkon sartuz gero; eta 2.10€ da bere prezioa". Hots, kilometroa 0.21€ ordaintzen da. "Seopan Autopisten Patronalak dio errentagarria dela errepidea 0.09 eurotan. Alegia, bikoitza baino gehiago ordaintzen dugu", aipatu du Alañak. Plataformako kidearen hitzetan, euren eskaera ez da horrenbestekoa: "AP-68an Aragoin 45 kilometro daude doan, eta Errioxan 32. Guk 12 kilometro horien doakotasuna eskatzen dugu, eta Altuberako zatian bonifikazioak jartzea". Norena da horretarako eskumena, ordea?

Errepidearen kudeaketa

Berez, 2011n aldatu zen sistema, "baina Jose Maria Aznar gobernuan zegoela 2026 arte luzatu zuten". 2019ko abenduan, Eusko Jaurlaritzako Diputazioen eskumena izatera pasatu zen, eta hobariak jartzeko aukera ireki zuten. "Ramiro Gonzalezek Orozkon hobariak jarriko zituela esan zuen aiaraldearrentzat. Nahiz eta hauteskunde kanpainetan Araba eta Bizkaiko diputatuek promesak egin, ez dute oraindik ezer bete". Hori dela eta, plataforma eratzea erabaki dute, doakotasun prozesua azkartzeko.

Areta-Orozko eta Bilbo arteko autopista zatia da Espainiako laugarren garestiena. Kilometro bakoitzagatik 0.21 euro ordaintzen dira zapaldu aldiro

Bizkaian erroldatutakoek A-8 erabiltzeko deskontu tarifa dute, baina AP-68rako ez. Egun, Gasteizerako noranzkoan soilik dago AP-68an hobari sistema (15 bidaiatik gora %60ko deskontua hain zuzen). Funtsean, Laudiotik Gasteizera joan-etorria egiteak 7.50€ balio ditu, "langile batentzat egunero joanda, urtean 798€ dira %60ko hobaria aplikatuta". Aldiz, Aiaratik Bizkaiara autopistaz hurbiltzeko ez dago hobaririk: "Egunean bi bidai Bilbora 4.10€ dira, urtean 1.113€ beraz". AP-68 Dohainik plataformako kideak bonifikazioen

aurka daude, eta garraio jasangarriaren alde: "Errepideak eraikitzearen kontra gaude. Hobariek beharrezko bidaiak baino gehiago egitea sustatzen dute, deskontua bestela ezin baita jaso". Alañaren iritziz, ehunka lagun dira egunerokoan Gasteizera doazenak, "Mercedes lantegira bakarrik 275 aiaraldear doaz". Bi galtzadak -autopista eta errepide nagusia- paraleloki doaz kasik, eta segurtasuna kolokan dutenean eguraldiagatik soilk hartzen dute askok autopista. "Segurtasuna ezin da izan ordaindu beharreko luxua, eskubidea baizik", zehaztu du.

Autopistaren erabilera merketzeko proposamenak landu izan dira zenbait udaletan gaur arte, "baina ez da ezer egiten". Horregatik erabaki dute plataforma sortzea, "alderdikerietatik urrunduta".

Autopista doakotzeak denbora eta kutsadura txikitzea eta segurtasun handitzea eragingo lituzke, plataformaren iritziz

Diputazioaren azterketa

Arabako Diputazioan autopistaren ordainketa sistema aztertzen ari dira. "Hiru aukera dituzte mahaigainean: aurrekontu bidez finantzatzearena AP-68a, zerga bereziekin ordaintzea edo erabileraren arabera kobratzea. Ponentzian parte hartzeko gonbita jaso dugu, baina ukatu egin dugu. Soluzio azkarra du honek: doakoa izatea. Gure ustez, EAEko errepide guztien gastuak aztertu beharko lirateke, eta ibilgailu denen artean zerga bidez banatu", azpimarratu du, "txirrindularien ere segurtasuna handitzea eragingo luke horrek garraio astunak ere bertatik bideratuko balira". Zentzu horretan, eskualdeko elkarteen atxikimendua lortu dute: Amurrio, Laudio eta Urduñako txirrindulari elkarteena eta Kuskumendi taldearena. Aurrera begira, dinamika berriak dituzte buruan. Sare sozialen bidez zabalduko dituzte deialdiak, aurkezpena eta auto karabana kasu.

"Dagokigunaren bikoitza ordaintzen dugu Bilbora bidaia"

KEPA ALAÑA ARRINDA (Ondarru, 1957) LAUDIOKO BIZILAGUNA AP-68 DOHAINIK PLATAFORMAKO KIDEA DA. BIDESARIRIK GABEKO ERREPIDEA IZATEKO ARRAZOIAK AZALDU DITU.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Plataforma aurkeztu berri duzue. Zein helbururekin?

Aiaran jaio da eragilea, baina Urduñatik Arrigorriagarainoko herrietara iritsi nahi dugu. Lanbideren arabera, Laudio eta Orozkotik 13.000 bizkaitar doaz Arabara lanera egunero, eta 9.000 arabar Bizkaiara doaz. Plataforma zerbitzu publikoa izateko helburuarekin jaio da, alderdikerietatik kanpo.

Erabiltzaileen gastua, errepidearena, eta kutsadura neurtu dituzue. Zeintzuk dira ondorioak?

Laudiotik Gasteizera 10 aldiz joateak 37.50€ balio du, eta 15 bidaia egiteak 30€ (%60ko deskontua aplikatzen da bidaia kopuru horretatik aurrera eta). Aldiz, Bizkaiara mugitzeko ez dago hobaririk. Eskualdetik jendetza mugitzen da Bilbora edota Gasteizera lanera, garraio publikoa oso murritza da eta gure hiriburura (Gasteizera) joateko asko ordaindu behar dugu.

Ingurumen kalteei dagokienez, Bilbotik Laudiorako tartean 5.06kg/CO_2 kutsatzen da, errepide nagusian 6.78 kg kaltetzen den bitartean. Denbora gutxiago behar izatea, kutsadura txikitzea eta segurtasuna handitzea eragingo lituzke bidesari ezak.

Diskriminazioa salatzen duzue. Zergatik?

AP-68ko Laudio-Bilbo tartea Espainiako errepide sarearen laugarren zatirik garestiena da. 2.10€ balio dute 10 kilometrok (Aretatik 10 kilometro daude, eta Laudiotik 12 km). Seopan Autopisten Patronalaren arabera, 0.09 eurotan kilometroa errentagarria da; beraz, bikoitza baino gehiago ordaintzen dugu (Aretatik Bilbora, 0.21€ dira kilometroa).

Azken 9 urteetan (20211tik 2020ra) Laudion autopista egunero hartzen dutenek ez dagozkien 8.700€ ordaindu dituzte, eta 2026 arte luzatzen bada egoera 4.250€ gehiago izango dira: guztira ia 13.000€. Gasteizera doazen hobaridunek 795 euroko gastua dute urtero, 7.100€ ordaindu dituzte iaz arte, eta egoera aldatu ezik ia 12.000€ utziko dituzte errepide horretan.

Instituzioen babesa bilatu edo jaso duzue?

Plataformaren jardute eremua Urduñatik Arrigorriagarainokoa da. Aiara eta Artziniegakoekin ere bildu nahi dugu. Momentuz Urduña, Laudio, Amurrio eta Orozkoko alkateekin elkartu gara. Ugao, Arakaldo, Arrankudiaga eta Arrigorriagakoekin ere hitz egin dugu, baita Batzar Nagusietako EH Bilduko biltzarkideekin ere. Aste honetan Podemos eta PPkoekin jarri dugu zita.

Plataforma gisa, zeintzuk dira zuen asmoak?

Orain arte dokumentazioa prestatzen ibili gara. Udalekin, Batzar Nagusietako kideekin eta sindikatuetako ordezkariekin elkartzen gabiltza orain, eta askoren babesa jaso dugu jada: ELA, LAB, UGT, STEILAS, EHNE, SATSE, EUSPEL... Oraingoz babes sindikal gehiago jasotzen ari gara politikoa baino.

Aurrera begira, plataforma publikoki aurkeztea, sare sozialak zabaltzea, eta auto karabanak antolatzea izango dira gure hurrrengo pausoak, doakotasuna eskatzeko.

erreportajea

Urrats bakoitza kalkulatzearen garrantzia



Hiru bilaketa handi egin zituzten iaz Aiaraldean. **URV Ertzaintza**

Mendi erreskateak ugaritu egin dira azken urtean. Arrazoia argia da: jende gehiago doa mendira, eta halabeharrez, istripu gehiago gertatzen dira. Estatistika hutsa. Istripuen atzean, ordea, prestakuntza falta, arriskuen ebaluazio eza eta gehiegizko konfiantza daude askotan.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Geroz eta herritar gehiagok jotzen dute mendira eta naturguneetara kirol-jarduera desberdinak gauzatzera. Pandemia garaian arnasgune bilakatu dira Aiaraldeko mendiak. Igoera honek, erreskateen gorakada ere eragin du, eta urte hasierako elurteak erreskate horiek are ikusgarriagoak bilakatu ditu, herritar askoren arreta erakarriz. Mendizaleen artean kezka hedatu da.

Larrialdi zerbitzuek bi eratara sailkatzen dituzte jasotako abisuak: Bilaketak eta erreskateak. Bilaketak mendi inguru batean lokalizatu gabeko pertsona edo talde baten bila egindako interbentzioei deritzote. Operazio handiak izaten dira: 50 lagunetik gorak hartzen dute parte, laguntza boluntarioa kontuan hartuta. Horrelako 3 operazio burutu zituzten Aiaraldean iragan urtean; azkena Orozkon, uztailaren 13an, mendian desorientatu ziren 5 lagunen bila.

Erreskatea, aldiz, laguntza eskatu duen pertsona lokalizatuta eta eremua ezaguna denean izendatzen da. Kasu horietan jarduten duen pertsona kopurua askoz murritzagoa da, 5-6 lagun ingurukoa, eta Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateak (ZEU) hartzen du parte bertan.

2020. urtean mota horretako 21 interbentzio gauzatu dituzte Larrialdi Zerbitzuek Aiaraldeko mendiguneetan. Batazbeste, hilabetean bi aldiz erantzun dituzte landa eta mendi eremutik jasotako laguntza deiak, hilabete eta erdiko itxialdia kontuan harturik. Artatutako istripuen artean, mendi bizikletarekin erlazionatutako lau interbentzio kontabilizatu dituzte.

Larrialdi Zerbitzuek, bataz beste, hilabetean bi aldiz erantzun dituzte landa eta mendi eremutik jasotako laguntza deiak

Heriotza Iturrigorrin

Zorigaiztoko zifra batekin itxi du eskualdeak mendiko erreskateen urtea: abenduaren 5ean 52 urteko Aiaraldeko bizilagun batek bizia galdu zuen Tologorri mendi magalean. Hipotermiaren ondorioz konortea galduta zendu zen. Sasoiko lehen elurteek, lainoak eta haize bortitzak asko zaildu zuen erreskatea. Larrialdi Zerbitzuek ordu asko eman zituzten Menerdigako ataka inguruan mendizalea jaisteko lanetan.

Erreskateen kostua

Mendi erreskateek kostu bat

dute beti, mobilizatu behar diren erreskate zerbitzuetako kideengatik edota helikoptero eta bestelako azpiegituraren erabileragatik ezarria.

Ohikoan erreskateak ez dira kobratzen, baina badira salbuespenak: kirol jarduera arriskutsuak direnean, abisu meteorologiko laranja edo gorria indarrean dagoenean...

Endika Larrazabal Mendiko Lagunak taldeko kidea da eta federatzeak duen garrantzia nabarmendu du: "Gure ustez ezinbestekoa da federatuta egotea natur ingurune batean kirol jarduerak burutzeko. Erreskateen kostuak barnebiltzeaz gain, arreta mediku espezializatua eskaintzen du federazioak".

Larrialdi Zerbitzuek interbentzioen gorakada sumatu dute. Euskal Autonomi erkidegoan

21 erreskate egin dira guztira Aiaraldean 2021. urtean zehar

2019an egindako erreskateak ez ziren 400 iristen, eta iaz 500 baino gehiago izan ziren; 100 ezbeharren aldea dago.

Jendea gehiago doa mendira, eta halabeharrez, proportzioan istripu gehiago gertatzen dira.

Julen Reketa mendi gidariak ere bat egiten du ekuazio horrekin. Pandemiak herritar asko mendira bultzatu baditu ere, zaletasunaren gorakada lehenagotik datorrela dio: "Natur guneetako jardueren gorakada azken urteetako kontua da. Mendia eta bertan egiteko ekintzak kontsumorako gai bezala aurkeztu dira, informazio gaindosia dago eta gauza oso goxo eta atsegin bezala aurkeztu digute, kontsumitzaile huts bihurtu gara".

Oso kritiko azaldu da Reketa mendizaletasun ereduarekin:

Julen Reketa mendi gidaria oso kritiko azaldu da naturguneetan gozatzeko hedatzen ari den kontsumo jarrerarekin

"Medio naturaletatik geroz eta urrunago bizi gara eta denbora tarte mugatu batean disfrutatzeko produktu bezala ikusten ditugu, presaka eta oso modu lehiakorrean gainera".


Endika Larrazabalek ere igarri du geroz eta jende gehiago doala mendira azken boladan. "Pandemiak modu batean edo bestean bultzatu egin du zaletasunaren hazkuntza, neurri murriztaile desberdinek kirol jarduera oso eskuragarria bilakatu dute mendia, kirol instalazio asko itxita daudelako edota lagunekin sozializatzeko dugun medio bakanetakoa delako agian".

Ezagutza eta prestakuntza

Istripuak eta ezbeharrak ekiditeko, bilakaera jarraikor batekin lotu du mendizaletasu-







2021 erreskate egin dira Aiaraldean 2020. urtean. **UVR Ertzaintza**

erreportajea

na Mendeikako mendi-gidariak. “Ezinbestekoa da etengabeko prestakuntza, egoera desberdinei aurre hartu ahal izateko”.

Osatuko den ibilbidea aurretiaz planifikatzea eta eremuaren gaineko ezagutza izatea ere ezinbestekoa da, baita inguru naturalak eskaintzen dituen seinaleak interpretatzen jakitea ere.

Aiaraldeko mendiak arrisku gabeak diruditen arren, egoera klimatologiko konkretuetan Pirinioetako baldintzak aurkitu daitezke bertan

Prestakuntza fisikoa eta material egokiaren hautaketa ere nabarmendu ditu Julen Reketak. “Jakitun izan behar gara daukagun gaitasun fisikoaz, eta jarduera zehatz bat egiteko beharrezko dugun materialaz”. Ñabardura txiki bat ere gaineratu du: “Askotan material garesti bat izateak ate guztiak zabaltzen dizkigula uste dugu, baina ez da horrela. Garrantzizkoagoa da ekipamendu hori erabiltzen jakitea: munduko kranpoirik onenak izan ditzakegu baina horiek erabiltzen ez badakigu alferrikakoak dira”.



Elur-jausi ugari jazo dira Aiaraldean azken asteetan, eta horrek nabarmen handitu du menditik ibiltzeak dakarren arriskua. **URV Ertzaintza**

Mendiak tranpa bihurtuta

Eskualdeko mendiek arriskutsuak ez diruditen arren, edozein baldintza aldaketek tranpa bihurtu ditzake une batetik bestera. Horregatik “medioaren ezagutzak” duen garrantzia azpimarratu du Reketak. “Baldintza klimatologiko desberdinek zeharo alda dezakete gure ibilbidea. Egun eguzkitsu bat ez da baldintza optimoen adierazle, beste faktore batzuk hartu behar dira kontuan”.

Larrazabalek ere bide beretik jo du: “Kontuan hartu behar dugu gure inguruko mendiak ez direla berdinak udan zein neguan. Eskualdeko mendietan Pirinioetako baldintza berdinak izan ditzakegu egun konkretu batzuetan: tenperatura oso baxuak, hipotermia arriskuak, elur-jausiak... Ezinbestekoa da gomendioak jarraitzea, ibilbidea ondo planifikatzea eta eguraldia arretaz kontsultatzea".

Elurraren etorrera

Mendien baldintza aldakor horren adibide izan da urte hasierako elurtea. Elurraren etorrerak Aiaraldeko bizilagun asko eta asko liluratu ditu, baina maldetan gerta daitezkeen arriskuak ere asko areagotu ditu.

Azken elurtea, gainera, ezohikoa izan da eta eskualdeko paisaiak eta egoera zeharo aldatu ditu, inguru askotan goi-mendiko neguko baldintzak sorraraziz

Jendea gehiago doa da mendira orain, eta halabeharrez, istripu gehiago gertatzen dira

Denbora laburrean gertatutako elur pilaketa azkarra, haize boladak eta 30-40 graduko inklinazio duten maldak elur-jausiak gertatzeko osagai perfektuak dira. Gorobel, Ganekogorta eta Gorbeia inguruetan baldintza guzti horiek elkartu dira elur-jausien irudi ikusgarri bezain arriskutsuak utziz.

Larrialdi Zerbitzuek Babes-Zibilaren laguntzarekin batera, Ganekogorta mendira igoera itxi zuten elur-jausien arriskuaren aurrean ezbeharrak ekiditeko. Ertzaintzaren ZEU unitateak, gainera, helikopteroz ikuskatu ditu Aiaraldeko mendizerrak, elur-jausiak identifikatzeko.

Informazio beharra

Pauso bat harago ematea eskatu du Julen Reketak: “Ertzaintzak zabaldutako Gorbeiako elur-jausien irudi ikusgarriek oihartzun handia izan dute baina informazioa faltan botatzen dut nik. Jendeari azaldu behar zaio zergatik gertatzen diren elur-jausiak, zeintzuk diren hauen sorrera eragi-







Ezinbesteko dira mendi-jarduera ondo planifikatzea, medioaren ezagutza izatea eta arriskuak ebaluatzen jakitea

ten duten fenomenoak, eta hauei nola egin aurre". Informazioaren beharra aldarrikatu du mendi-gidariak. Edozeren inguruan informazio demasa dagoen honetan, hain zuzen, mendi inguruneko arriskuak saihesteko informazio kontrastatua faltan botatzen du Julen Reketak. "Arriskuen ebaluazio egoki bat egiteko informazioa behar du mendi-ingurune batera jardueraren bat egitera doan orok. Interneten milaka eta milaka datu aurkitu daitezke, ibilbide desberdinen ingurukoak esaterako, baina informazioaren kontraste egokirik gabe arazo larrietan sartzeko arriskua dago".



JON APODAKA SARATXO
GEOLOGOA

Elurra eta elur-jausiak

Euskal Herrian, elur-jausi arriskua ez-ohikoa da, Nafarroako ipar-ekialdean salbu. Bertan Izabako herrigunea dago, Erronkari-Zaraitzu eskualdean. Neguan, elurte handiak ditugunean, elur-kotak gora egiten duenean edota tenperatura handiko egun eguzkitsuetan, Lakora (1.843m) mendiko hego magalean elur-jausiak ohikoak dira eta horregatik NA-137 errepidea (Burgi-Izaba-Frantzia) itxita egoten da 45. kilometrotik aurrera Frantziako mugaraino. Horrek, aterpera, ipar eski gunera eta Frantziako Arette-La Pierre Saint Martin eski estaziora iristeko aukerak galarazten ditu aldiro.

Bien bitartean, aurtengo gabon oporretan eta urtarrilean zehar, elurraz euskal mendietan gozatzeko aukera paregabea izan dugu. Baldintzak oso onak izan dira zenbait egunetan zehar eta metatutako elurragatik elur-jausiek eragindako istripuak gertatu izan dira, pertsonak arrastaka eraman dituztenak eta materiala galtzea eragin dutenak, Aizkorri eta Anbotoko mendiguneetan, esaterako.

Neguko baldintza hauetan, ezinbestekoa da ohitura onak jarraitzea: Irteera ongi prestatzea, EBD (Elur-jausien Biktimen Detektagailua) eramatea eta ongi erabiltzen jakitea, pala eta zunda izatea, material segurua erabiltzea (kontu handia uhalekin), beti lekurik seguruenetik trazatzea, ez arriskatzea inoiz talde osoa aldi berean, ondorioak beti kontuan izatea, zure erabakiak etengabe berraztertzea, taldearen barruan komunikazio ona izatea, ikastea eta informatzea.

Etorkizunean horrelakoak izango ditugu? Seguru baietz. Elurte hauek guztiz bateragarriak dira Iberiar penintsula eta planetaren zatirik handiena jasaten ari den tenperaturaren hazkundearekin, gizakiak berotegi-efektuko gasak igortzen dituelako.

elkarrizketa

“Afrikako herrien filosofiaren funtsa euren ipuinetan dago”

BONIFACE OFOGOk (Omasa, Kamerun, 1966) IPUIN KONTALARI GISA EGITEN DU LAN. AFRIKAKO KONTAKIZUNAK BILDU ETA PLAZARATZEN DITU. HAINBAT LIBURU ARGITARATU DITU, ETA DATOZEN EGUNETAN PLAZARATUKO DU EUSKARAZKO LEHENA, PAMIELA



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Kamerunen sortu zinen baina urteak daramatzazu Laudion bizitzen. Nolatan?

1988ko irailaren 22an iritsi nintzen Madrilera. 2006. urtera arte egon nintzen bertan bizitzen. Ordura arte bisitan etortzen ginen noizbehinka Laudiora, nire bikotea hemengoa delako. Higiezinen burbuilaren biktima izan ginen. Nire seme-alabak jaio zirenean etxe handiago bat bilatzen hasi ginen, baina ez genuen Madrilen topatzerik izan. Gauzak hala, Laudiora bizitzera etortzea erabaki genuen, familiaren etxea eta sostengua genituelako. Hala ere, ni Madrilera noa sarritan, lan kontuengatik.

Nola hasi zinen ipuin kontalari gisa lan egiten?

Beka batekin joan nintzen Kamerunetik Madrilera. Hispanitate Filologia ikasi nuen, eta master bat ere egin nuen, migrazioei eta komunitateen arteko harremanei buruzkoa. 1999tik 2006ra alor horretan egin nuen lan, baina unibertsitatean ipuinak kontatzen hasi nintzen. Hori egitetik soilik bizi nintekeela konturatu nintzenean uko egin nion beste lanari.

Kasualitatez hasi zen dena. Unibertsitateko Kultur Astean ipuin afrikar bat kontatzea proposatu zidaten, 1992. urtean. Ipuin hori urte honen amaieran argitaratuko dut, ilustratze fasean dago. Ipuin bakarra kontatu nuen, baina harrera izugarria izan zuen. Lagun eta irakasle ugarik zoriondu ninduten. Liburutegi eta eskoletatik deitzeari ekin zioten, eta orain hori da nire ogibidea. Herrialde asko bisitatzen ditut. Afrika eta Hego Amerikan asko aritzen naiz. Urrian Kariben egon nintzen, adibidez. Badago Internet bidez ezagutzen nauen eta niregana jotzen duen jendea, baina toki gehienetan dagoeneko izan dute nire berri. Jaialdi guztietan ezagutzen naute. Iragan astean Alemaniako Nazioarteko Eskolan egon nintzen, Frankfurten, telematikoki. Europako hizkuntza asko irakasten dituzte bertan, eta nik gazteleraz zein frantsesez kontatu ditut ipuinak.

Zertan datza zehazki zure lana?

Publiko bati istorio bat kontatzean, antzina bezala. Eskola eta liburutegietan aritzen naiz batez ere. Heldu zein haurrentzako kontakizunak ditut, eta zenbait liburu argitaratu ditut. Hilabete honen amaieran argitaratuko da euskaraz egin dudan lehena: *Kandinga lehoia*. Ipuin hori euskaraz kontatzen ikasteko asmoa daukat, nire alabaren laguntzarekin. Jarraitzaile klub bat dut Lauro Ikastolan, Leioan, eta ipuina euskaraz kontatuko niela hitzeman nien. Ez naiz zerotik hasiko,

elkarrizketa



Antzinako memoria berreskuratzeko saiakerak egiten dira ipuinen bidez. Afrikako herrien filosofiaren funtsa euren ipuinetan dago. Afrikara gerturatu nahi baduzu bere ahoz ahoko tradiziora hurbildu behar zara lehenbizi, ipuinetara batez ere. Modu horretan gauza asko ulertu daitezke.

“Ipuinetako asko datoz nire txikitako oroitzapenetatik. Baina, aldi berean, nire jatorrizko herrira joaten naiz. Herrixka horretan ez dago argindarrik, eta ahoz ahoko tradizioa indartsu dago oraindik”

“Orain argitaratuko dudan liburua buruz ikasiko dut, euskaraz kontatu ahal izateko”

Madrilen 1995. urtean euskara apur bat ikasi nuelako Euskal Etxean. Jada ahaztu zait, baina hemen bizi naizenez ohitua nago euskara entzutera.

Zer kontatzen du Pamiela argitaletxearekin plazaratzear zauden liburuak?

Fabula bat da, album ilustratu formatuan. Bere boterea gehiegikeriaz erabiltzen duen lehoi baten istorioa da.

Ipuin afrikarrak kontatzen dituzu. Zer dute berezi kontinente horretako kontakizunek?

Beste toki batzuetako ipuinak kontatzeko badaude beste kontalari batzuk, ni ipuin afrikarretara mugatzen naiz.

Afrikako kultura ahoz-ahokoa da batez ere, ia dena transmititzen da horrela, eta hori islatzen da ipuinetan.

Ipuinak umeentzako direla esan ohi da askotan, baina zure publikoa helduek osatzen dute maiz.

Betidanik pentsatu izan da ipuinak umeentzako soilik direla, baina pertsona orok du ipuinen beharra, bere kokapen sozial, adin edo lanbidea edozein izanik ere. Kolonbia bezalako herrialdeetara noanean antzokiak ikusten ditut jendez lepo. Gorbatadun jendea, umerik gabe, ipuinak entzuteko prest; eta sarrera ordaintzen dute gainera! Gizakion beharrizan bat da. Ume garaiko herentzia berreskuratzen dugu horrela. Denok dugu imajinazioarekin bidaiatzeko eta istorio erreal zein asmatuak irudikatzeko beharra.

Ahotsa da erabiltzen duzun lanabes bakarra?

Bai. Orain, pandemia hasi zenetik, online saio asko egiten ditut. Ahotsa eta hitza dira nire lehengaiak. Baina begirada eta keinuek ere dute garrantzia istorio bat ondo kontatzerako orduan. Jantzi afrikarra janzten dut emanaldietan, eta ahotsa eta keinuak baliatuta kontatzen dut istorioa. Ikusleak lelotuta geratzen dira.

Zenbait liburu argitaratu dituzula aipatu duzu.

Bai. 2006. urtean plazaratu nuen lehena: *Una vida de*

elkarrizketa

cuento. Espainiako Hezkuntza Ministerioak eskatu zidan. Eskola askok esan omen zuten hezkuntzako helburu gehiago betetzen nituela nik ipuin-saio bakarrean eurek urtebetean baino, kultur aniztasuna edota baloreen transmisioari dagokienez.

Kalandraka argitaletxearekin lan egin ohi dut. Onenak dira haurrentzako materialak ekoizten, eta Pamiela argitaletxearekin elkarlanean aritzen dira.

Oso ezberdina da ipuin bat kontatzea edo idaztea?

Osagarriak dira bi jarduerak. Elisa Arguile ilustratzailearekin lan egin dut. Espainiako Ilustrazio Saria irabazi du. Nik istorioa egin eta bidaltzen diot, eta bera arduratzen da marrazkiak egiteaz. Orain eleberri bat idazten ari naiz. Hemendik hilabete gutxira amaitzea espero dut. 2017. urtean hasi nuen.

Proiektu berriak dituzu, beraz.

Bai. Pandemia hasi zenean ipuin kontaketa saioak eten ziren, baina orain berriz heldu diet. Lehen hiruhilekoko agenda ia beteta daukat. Baikorregia izan naiteke agian, baina uste dut jende orok nahi duela gauzak ondo joatea, kultura munduan dabilen jendeak batez ere. Badago borondatea kultur langileen zein programatzaileekin partetik. Horregatik naiz baikorra.

Nobela laster amaitzea espero dut. Badut idatzita, berrikuspen fasean dago. Udaberrirako argitaratzea espero dut.

Zeri buruzkoa da eleberria?

Etorkin baten bizitza du hizpide, hirugarren pertsonan kontatuta. Kanpoan urte batzuk eman ostean bere sorterrira itzuli behar da, bere aita zaintzera, gaixorik dagoelako. Ospitalean daudenean pandemia hasten da. Badago herrialdearen egoerari lotutako trama politiko bat... Nire herrialdearen istorioa kontatzen du, funtsean. Nire bizitzan inspiratua dago, baina fikziozko zati asko ditu.

Badago aldea ipuin bat idaztetik eleberri bat osatzera. Eroso sentitu zara?

Bai, oso eroso. Konfinamenduan zehar ez nintzen aspertu (barreak). 2017. urtean hasi nuen, baina iaz



idatzi nuen gehiena. Egunero idazten nuen, beharrezkoa delako diziplina izatea.

Nola osatzen dituzu kontatu edo idazten dituzun ipuinak? Zuk txikitan entzundakoak dira edo ikerketa lanen bat egin duzu kontakizunak berreskuratzeko?

Ipuinetako asko datoz nire txikitako oroitzapenetatik. Baina, aldi berean, nire jatorriko herrira joaten naiz. Herrixka horretan ez dago argindarrik, eta ahoz ahoko tradizioa indartsu dago oraindik. Bertatik ipuinak jasotzen jarraitzen dut. Nire istorio guztiak daude errealitate horretan inspiratuta.

Aldaketa asko daude Afrikako zonalde bateko eta beste bateko ipuinen artean?

Kultura guztietako ipuinek dute elkarrekiko antz handia. Pertsona guztioi kezkatzen gaituzten arazoei erantzunak bilatzeko saiakerak dira ipuinak. Erantzun hori ezberdina izan daiteke tokiaren arabera, baina arazoak berdinak dira: ezezagunarekiko beldurra, heriotzaren ostean zer gertatzen den, besteekiko harremanak... hori dena islatzen da ipuinetan, arketipo moduan. Mendebaldeko herrietako eta Afrikako ipuinak antzekoak ziren, baina lehengoek zentsura pairatu zuten kristau eta burges moralen partetik. Zentsura hori ere ikusi daiteke fraide katolikoek eginiko ipuin afrikarren bildumetan.

Kandinga lehoiaren ipuinean, adibidez, pertsonaia nagusia hil egiten da. Sekulako eztabaida izan nuen argitaletxearekin, umeak horrelakoetara ohituak ez zeudela argudiatzen zidatelako. Ez daude ohituak, ez; baina bertsio faltsutuak kontatu dizkiegulako. Txanogorritxu, jatorrian, ipuin krudela bat, baina moralaren filtrotik pasarazi dute, ehiztariaren pertsonaia sartuz eta amona azken unean otsoaren sabeletik aterata.

Zer nolako etorkizuna ikusten diozu ipuin kontalaritzari? Ahoz ahoko transmisioa mantendu egingo dela uste duzu?

Ipuin kontalariak kultur erresistentzia mugimendu baten parte gara, aldaketarekiko erresistentzia, komunikazio birtualaren aurrean. Gizakiak gara hitzez komunikatzen garen bakarrak. Ipuin kontalariok ez dugu hitza hiltzen utziko. Etorkizun oparoa ikusten diot ogibide honi, paradoxikoki. Badago zerbait garrantzitsua galtzen ari garenaren kontzientzia. Konfinamendua hasi zenean ipuin kontaketa saio bat egin nuen zuzenean sare sozialen bidez, etxean geratu behar ziren ume guztientzako. 10.000 ikustaldi izan zituen. Umeek marrazki bizidunak eta beste hainbat entretenimendu dituzte, baina ipuinen beharra dute oraindik.

Baina ez duzu uste ahoz ahoko transmisioa galtzen ari denik?

Galtzen ari da. Bizitzeko moduak eragin handia du horretan. Orain jende nagusia zaharren egoitzetan sartzen dugu, eta bilobekiko transmisioa apurtzen dugu horrela. Antzina, baserrietan, haurrak nagusiekin zeuden. Gizakiok ez dugu ahoz ahoko transmisioa gorroto, baina belaunaldien artean dagoen tarteak galarazi egiten du transmisio hori egin ahal izatea. Funtsezkoa da gurasoak seme-alabei gauero ipuinak kontatzea, baina gaur egun ez dago horretarako denborarik.

Ipuinak gazteleraz eta frantsesez kontatzen dituzu, baina horretarako itzultzen lana egin behar duzu, ez?

Hala da. Ez da nahikoa itzulpen linguistikoa egitearekin, kultur itzulpena ere egin behar da. Gauza batzuk nire herrian nire ama hizkuntzan esaten baditut jendea barrez lehertzen da, baina frantsesez esaten baditut ez dute graziarik sortzen. Moldaketak egin behar ditut.

Hizkuntzak komunikaziorako bide huts izango balira nahikoa izango genuke bakarra jakitearekin, ingelesa eta listo, hori baita munduan inposatzen ari dena. Baina hizkuntza bat komunikatzeko bide bat baino gehiago da. Hizkuntza bat kultura baten espresiobidea da, sentsibilitate batena, emozio batena, mundua ikusteko modu batena.


Horregatik da horren garrantzitsua hizkuntza mantentzea. Hizkuntza bat desagertzea tragedia bat da. Ekologiaren ikuspegitik, espezie bat galtzea bezain larria da, atzean dagoen guztia desagertzen delako. Euskara desagertuko balitz sekulako arazoa sortuko litzateke, gauza asko euskaraz soilik adierazi daitezkeelako. Gazteleraz eta frantsesez hitz egiten dut, baina badaude gauza batzuk nire ama hizkuntzan -yambassa- soilik adierazi ahal ditudanak. Horregatik naiz hizkuntza oro defendatzearen aldekoa.

> **“Mendebaldeko ipuinek moral kristau eta burgesaren zentsura dute, afrikarrek ez bezala”**

> **“Orain jende nagusia zahar etxeetan sartzen dugu, eta bilobekiko transmisioa apurtzen da”**


> **“Funtsezkoa da gurasoak seme-alabei gauero ipuinak kontatzea, baina gaur egun ez dago horretarako denborarik”**

Una vida de cuento



Una vida de cuento da Boniface Ofogok plazaratutako lehen liburua, Espainiako Hezkuntza Ministerioaren bidez argitaratua. Autobiografia formatuko argitalpena da, eta Afrikako ahoz ahoko tradizioaren garrantzia du hizpide.

Kandinga lehoia



Hainbat hizkuntzetara itzuli dute Ofogok idatzitako ipuin hau. Pamiela argitaletxeak datozen egunetan plazaratuko du euskarazko bertsioa.

AIARALDEA GAUR

agenda

2021/01/27
2021/02/02



Roberto Arribas

Amurrioko kintoen jaia, hari batetik zintzilik

Eusko Jaurlaritzaren neurrien zain daude Amurrioko Kintoak, aurten kantuan atera ahal izateko. Udalak, segurtasun-sailarekin harremanetan jarri ostean, baimena eman die, beti ere indarrean dauden neurriak betetzen diren bitartean. Gauzak horrela, lau laguneko taldetan, distantziak mantenduta eta maskara erabilita aterako dira kintoak.

Egoera aldakorra dela jakitun, azken unera arte zain egongo direla adierazi dute aurten 18 urte beteko dituzten amurrioarrek: "Otsaila hasieran indarrean egongo diren neurrien arabera baloratuko dugu kantuan aterako garen edo ez". Udaletik jakinarazi dute erabakia kintoen esku dagoela.

2021eko kintoak

Guztira 75 dira aurten 18 urte betetzen dituzten Amurrioko gazteak, eta ohikoa den bezala, Agate Deunaren bezperan -otsailaren 4an- Amurrioko herri desberdinak kantuan eta eskean zeharkatzeko entseguak burutu dituzte azken asteetan. Otsailaren 4aren ondorengo ostiralean ospatzen den erromeria bertan behera geratu da, hala ere. Egoera sanitarioak hobera jotzen duenean espero dute berrartzea, Aiaraldea Komunikabideari aipatu diotenez.

KONTZERTUAK

01.30 Larunbata
19:00 OROZKO
MARIA RIVERO ETA TRIBUTU BANDA
"Kultur barikuak" dinamikaren barruan egingo zuten kontzertua urtarrilaren 8an, baina osasun arazoengatik atzeratu behar izan zuten
Donibane Aretoa


KIROLA

01.29 Ostirala
19:30 ARETA
EUSKADIKO LAU T'ERDIKO ELITE TXAPELKETA
Finalerdiak jokatuko dira. Maiz eta Espinal arituko dira norgehiagokan
Frontoia

ANTZERKIA

01.30 Larunbata
17:30 AMURRIO
"BOTADUN KATUA"
***Botadun katua* haurrentzako antzerkia eskainiko dute Amurrio Antzokian.**
Sarreren prezioa: 5 euro
Bazkideentzako salmenta eguna urtarrilaren 18a izango da. Publikoarentzako salmenta eguna, berriz, urtarrilaren 19ean, 9:00etatik aurrera
Sarrerak Amurrioko Kultur Etxean edo amurrioantzokia.eus webgunean eskuratu daitezke
Amurrio Antzokia

02.06 Larunbata
18:00 AMURRIO
"LOSERS"
Jon Plazaolak eta Aitziber Garmendiak *Losers* antzerkia eskainiko dute Amurrio Antzokian Sarreren prezioa: 12 euro. Bazkideentzako salmenta eguna urtarrilaren 25a izango da. Publikoarentzako salmenta eguna, berriz, urtarrilaren 26a, 9:00etatik aurrera Sarrerak Amurrioko Kultur Etxean edo amurrioantzokia.eus webgunean eskuratu daitezke
Amurrio Antzokia



TAILERRAK

02.02 Asteartea
OROZKO
BOKAZIO ETA ORIENTAZIO SAIOAK
17:00-19:00 gazteak eta 19:00-21:00 helduak
Gaztetxokoa

02.04 Osteguna
18:00 OROZKO
"ZURE DENBORA, KUDEAKETA ETA TELELANA; KORONABIRUS GARAIAN, BATERATZERIK BAI?"
Laia Eskolaren programazioaren barruan tailerra eskainiko dute Orozkon, otsailaren 2tik, martxoaren 2ra, asteartero. Tailerra gaztelaniaz izango da. Izen-emateko azken eguna urtarrilaren 28a izango da. Laiaeskola.eus atarian egin behar da inskripzioa
Gaztetxokoa

02.04 Osteguna
OROZKO
BOKAZIO ETA ORIENTAZIO SAIOAK
17:00-19:00 gazteak eta 19:00-21:00 helduak
Gaztetxokoa

02.06 Larunbata
18:00 LUIAONDO
BIODANTZA TAILERRA
Tailer hau datorren otsailaren 6an -larunbata- hasiko da, 10:00etatik 12:00ak arte. Tailerrak hurrengo hilabeteetako lehenengo larunbatero izango du jarraipena, aurreko ordutegi berdinarekin, eta ekainaren 5ean egingo da azken saioa. Pertsonen barneko potentziala ezagutu eta garatzeko aukera eskaintzen duen gorputz-teknika da biodantza. Izena emateko 686 58 78 89 telefonora deitu behar da
Gizarte Etxea



HAURRENTZAKO JARDUERAK

Maria Rivero kontzertuan, ostiralean



Orozkoko Donibane aretoan joko du Maria Rivero abeslariak, bere bandarekin. Urtarrilaren 30ean izango da kontzertua, 19:00etan. Toki kopuru mugatua izango du emanaldiak. Horregatik, posta elektronikoz eman beharko da izena. Zehazki, Induman gauzatu beharko da erreserba, infoinduma@yahoo.es helbidera mezua bidalita. Sarrerek 3€ balioko dute.

Martxoaren 8a antolatzen hasteko bilera



Martxoaren 8an zer egin pentsatzen hasteko bilera irekia egingo du Laudioko Mugimendu Feministak datorren igandean, urtarrilak 31. Arratsaldeko seiretan izango da zita. COVID-19ak sortutako pandemia dela eta, online egingo dute topaketa. Parte hartzeko ondorengo estekan sartu beharko da: labur.eus/laudiokomugimendufeminista

Adimen emozionala hizpide Orozkon

Elkarbizitza eta adimen emozionalari buruzko hitzaldia antolatu du Orozkoko Eskolako Guraso Elkarteak. Ostegun honetan -urtarrilak 18- izango da zita, 18:00etan Donibane Aretoan. Toki kopuru mugatua egongo da eta, horregatik, beharrezkoa izango da aurretik izena ematea, infoinduma@yahoo.es helbidera mezua bidalita.

Haurren adimen emozionalaren garapena eta gatazken gainditzea jorratuko dira solasaldian. "Argi dago bizikidetza ikasleen artean txiki-txikitatik landu behar dela, bai ikastetxean bai familian, ikasleak harreman egokiak izateko behar diren gaitasunez jabe daitezen, enpatian eta errespetuan oinarrituta", azaldu du Orozkoko Udalak gaiari buruz plazaratutako eskuorrian.



JARDUERAK

30.01 Larumbata
OROZKO
JOLASTXOKOA
3 eta 5 urte bitarteko umeentzako 'Jolastxokoa'. 11:30etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Izen ematea: ostiralreo Indumaren bulegoan (18:00-20:00) edo infoinduma@yahoo.es helbidera mezua bidalita
Gaztetxokoa

INFO +
aiaraldea.eus

Kartelera



LAUDIOALDE ARETOA
Martin Eden
URTARRILAK 30
LARUNBATA
(3 euro)
18:30



DONIBANE ARETOA
Elfkins
URTARRILAK 31
IGANDEA
(3,5 euro haurrak eta 4,5 euro helduak)
16:30



LAUDIOALDE ARETOA
Lur eta Amets
URTARRILAK 31
IGANDEA
(3 euro)
17:30



AMURRIO ANTZOKIA
Hasta el cielo
URTARRILAK 31 ETA OTSAILAK 1
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5/3,75 euro)
19:00

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!

WhatsApp
Jaso Whatsappean eguneko edukiak, 688 848 152 zenbakira AIARALDEA GAUR mezua bidalita!

TELEGRAM
Batu Telegramera t.me/aiaraldeaeus esteka bidez!



INFO+ **www.aiaraldea.eus**

kultura

“Konposatzean ez dut estilo finko bat jarraitzen, barrutik ateratzen zaidana egiten dut”



UNAI ETXEBARRIA (BASAURI, 1993) ERRETES TUDELAN BIZI DA GAUR EGUN. IBILBIDE OPAROA EGIN DU MUSIKAGINTZAN, BERE BAKARKAKO BIGARREN LANA PLAZARATU BERRI DU: *MUSU BAT* DISKOA.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkia **Zuriñe Alava**

Pandemia baten erdian plazaratu duzu zure bakarkako bigarren lana. Egoerak bultzatu zaitu horretara?

Musu bat pandemiaren erdian sortutako lana da bai, baina urtearen azken hilabeteetan amaitutako proiektua izan da. Pandemiak izan du eragina baina, egon izan ez balitz ere, lana plazaratuko nuke. Aurtengo egoera oso zaila izaten ari da guztiontzat, baina bereziki artisten mundu honetan sartuta gaudenontzat, eta hori izan da arrazoi garrantzitsuena.

Oso gaztetatik ekin diozu musika jotzeari. Zer nolako ibilbidea izan duzu orain arte?

Ibilbide nahastu bat izan dut. Nire aitarekin txikitatik daramat plazaz-plaza trikitixa eta panderoa jotzen. Baina, erromeriaz aparte, beste musika estilo asko landu izan ditut, rocka, adibidez. Talde batekin urte asko aritu nintzen. Erromeri talde batekin ere egon nintzen, beste urte pila bat. Orain , proiektu asko ditut buruan, trikitixa erro moduan hartuta.

Atzekabe taldearekin aritu zara, baina orain bakarlari gisa taularatu zara. Zergatik erabaki duzu salto hori ematea?

Atzekabek oso fruitu ederrak eman dizkit, baina fruitu horietara nola heldu jakiteko modua ere. Momentu ederrak atzean utzita eta taldekideen heldutasun garaiko zailtasunak ikusita, nire kabuz jarraitzea pentsatu nuen eta horrela izan zen.

Gordeta nituen letra batzuk. eta berriak ere egin ditut. Argitaratzeko modu bakarra nire kabuz egitea zen, nire erritmora moldatzeko.

Folk soinuak jorratzen dituzula dio diskoaren aurkezpenak, baina abestietan bestelako estilo batzuen eragina ere sumatu daiteke. Zer nolako doinu eta letrak bilatu dituzu?

Konposatzen dudanean ez dut estilo finko bat jarraitzen. Barrutik ateratzen zaidana egiten dut, eta gustatzen bazait, perfekzionatu egiten dut. Letrak normalean lehendik idatzita izaten ditut. Hainbat gairi buruzkoak dira: ikusten dudana, bizi dudana... Ez dakit, munduan topatzen ditudan istorioak islatzen ditut paperean.

Zure aitarekin ere jotzen duzu. Zer nolako eragina izan du berak zure ibilbidean?

Musika arlotik dakidan asko irakatsi dit berak. Gehienbat, jendearekin musikariok izan behar dugun presentzia eta haiekin egoten jakitea. Nire musika ibilbidearen erdia aitarekin igaro dut eta, ziur aski, musikari agur esaten diodan arte, ondoan izango dut, eta horretaz harro nago.

Zuk zeuk konposatu eta grabatu dituzu instrumentu guztiak. Modu kontzientean hartutako erabakia izan da, edo egoerak bultzatu zaitu horretara?

Bai, modu kontzientean hartutako erabakia da. Apurka apurka eta modu kontzientean, urteetan zehar instrumentuak nik bakarrik jotzen ikasi ditut. Horregatik, orain dela urte batzuk era berdinean, grabaketa, nahasketa eta produkzio apur bat ikasita, aurrera jarraitu nuen. Beraz, orain nik bakarrik egiten dut guztia eta nire gustuaren arabera moldatzen ditut abestiak, edo horretan saiatzen naiz behintzat.

Urte arraro baten amaieran plazaratu duzu diskoa. Pandemiak erabat baldintzatu du kontzertuak egin ahal izatea. Nola duzu diskoa aurkezteko asmoa?

Sare sozialetan egin dut aurre-aurkezpena. Kontzertuak egin nahi ditut, proposatu ere egin dizkidate. Baina egoera dagoen moduan ezin da ezer programatu. Beraz, ametsgaizto hau amaitzen denean, espero dut jendeak kontzertuak eta musika arnasgune gisa erabiltzea. Orain, gauza bakarra gomendatzen diot jendeari: bozgoragailuak hartzea eta gustoko duen musika entzutea.

Orozkon grabatutako *Ilargi guztiak* filmaren trailerra, sarean ikusgai

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Interneten dago ikusgai Ilargi guztiak filmaren trailerra. Zaloa, Ugalde eta Urigoiti auzoetan grabatu zuten, besteak beste, ikus-entzunezkoa. Fantasiazko pelikula da, eta Igor Legarreta da zuzendaria. Itziar Ituño edota Josean Bengoetxea agertzen dira filman. Aurten estreinatuko da.



Filmaren kartela.



PATXI ITURREGI
IDAZLEA

Paradisuko Mailadia



Lanetik bueltan, etxeko atarian sartu denean, Mirenek zalantza egin du igogailua erabili ala ez, zeren, pandemiaren erruz, ez baita batere fidatzen espazio komunen garbitasunarekin. Edonon topatzen du kutsatzeko arriskua. Azkenean, eskaileran gora hasi da, sorbaldatik zintzilik daraman poltsa zabaletik tira eginez. "Ikasi beharko nuke aldean hainbeste gauza ez eramaten", dio berekiko. Baina, etxetik ateratzean, dena iruditzen zaio ezinbestekoa: dela tableta, dela mugikorra, dela metroan tarteka irakurri ohi duen Lucia Berlinen liburu interesgarria... "Animo, neska, hiru pisu ez dira ezer!".

Aurreneko solairura iritsitakoan, zur eta lur geratu da, lehenengo B-ko plaka argiduna irakurrita. "Madina abokatuak. Zerbitzu juridiko espezializatua". Egia esan, eraikinean bizi den hiru urte eskasetan, inoiz ez da eskaileratik igo, baina, zaratagatik edo, ate horren atzean txakur-klinika bat zegoelakoan zebilen bera. Bigarrenera helduta, ordea, harritu baino gehiago haserretu egin da. Ez dituzte ba lanpara fluoreszenteak jarri, LED motatakoak jarri beharrean! Hurrengo bileran entzungo diote. Bai, horixe!

Finean, bere etxebizitzara ailegatu da, baina giltza sartu orduko, kontxo!, zerbait oker dabilela konturatu da. Berehala, norbaitek barrutik zabaldu eta irribarre atsegina egin dio. "Zer nahi duzu, andrea?" Neska asiar gazte bat da, kimonoren paparrean "Lovely nails. Manikuraren paradisua" idatzia daramana. Eta Miren, lehen aldiz bizitzan, bere kontraesanak gainditzeko prest sentitu da.

Eskualdeko zenbait idazlek abiatutako 'Astegun Buruzurietako Ajeak' ipuin-segidaren 5. atala da hau.

Rhinaren bihotz taupada, Bea Ibañezen ama bakarra izatearen prozesua, ipuin bihurtuta

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Ama bakarra izatea erabaki zuen Bea Ibañez orozkoarrak, eta prozesua ilustrazioz hornitutako ipuin bihurtu du. Lana argitaratzeko, diru bilketa egiten ari da Internet bidez. Euskaraz zein gaztelaniaz egongo da irakurgai bere gogoeta lana.

"Bikote gabeko ama izatea erabaki nuenean, umeari nire erabakia nola azaldu pentsatzeko beharra agertu zitzaidan. Bibliografia bila hasi nintzen, baina apenas aurkitu nuen euskaraz informaziorik, eta garrantzitsua iruditzen zitzaidan eskolan haurrak bere istorioa nola kontatu jakitea, aita duela esaten badiote. Hori dena bildu nahi izan dut, hainbat pertsonaien bidez".

Bi urteko sorkuntza prozesua izan da. Erditzeko, baina, finantzatzeko bidea zabaldu du sarean, crownfoundig bidez.

Helburua, gertu

15 egun barru itxiko da ekarpen ekonomikoa egiteko aukera. Helburu gisa 5.000 euro eskuratzea jarri zuen orozkoarrak, eta dagoeneko 4.100 euro pilatu ditu.



kultura

“Abestiak berreskuratzea da Kuttuneren helburua, ahanzturan erori ez daitezen”



NEREA QUINCOCES OCHOA (Artziniega, 1993)
KUTTUNE TALDEA SORTU DU BESTE HAINBAT MUSIKARIREKIN BATERA. ‘CROWDFUNDING’ KANPAINA ABIATU DUTE LEHEN DISKOA PLAZARATZEKO.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

'Crowdfunding'-a abiatu zenuten Kuttune taldearen lehen diskoa plazaratzeko, eta gutxieneko diru kopurua eskuratu duzue dagoeneko. Nola baloratzen duzue ekimenak izandako harrera?

Oso harrera ona izan du, oso pozik gaude. Jende ezagun zein ez horren ezagunak jarri du dirua. Proiektuarekiko atxikimendua dutenen kontaktu sare bat egiteko balioko digu. 'Crowdfunding'-a diskoa aurretik erosteko modu bat da, eta era honetan denek izango dute diskoa kaleratu bezain laster. Pozik gaude, beraz.

Otsailaren amaieran amaituko da dirua biltzeko ekimena. Zer egingo duzue orduan?

Entseatzen hasiko gara, diskoaren grabaketari begira. Apirilean sartuko gara estudioan. Bi hilabete ditugu dena prestatzeko. Diskoaren azala Paula La Fuentek egingo du.

Badakizue noiz argitaratuko duzuen?

Ez dugu datarik zehaztu, inoiz ez dakizulako zer gertatu daitekeen. Baina grabaketak apirilean egingo ditugu, hori ziur. Diskoaren nahasketa eta kopiak egiteko behar den denboraren arabera, lehenago edo beranduago izango dugu emaitza. Espero dugu 'crowdfunding'-aren bidez aurreikusita genuen kopia kopurua ateratzeko haina diru eskuratzea.

Duela urtebete sortu zenuten taldea. Nola batu zineten eta zer nolako ibilbidea izan duzue orain arte? Pandemia bat izan duzue erdian...

Taldearen ideia duela bi urte inguru sortu zen, orduan hasi ginen grabatzera goazen errepertorioaren gaineko ikerketa egiten. Taldea duela urtebete eratu genuen, gutxi gorabehera. Entseatzeari ekin genion, eta pandemiaren erdian aukera izan genuen kontzertu bat eskaintzeko, Bilbon. Oso harrera ona izan zuen emanaldiak. Ondoren geldialdia izan dugu, mugikortasun aldetik egon diren neurri guztien ondorioz. Baina orain entseguak modu profesionalean egingo ditugu, diskoari begira. Normaltasunen jardun ahal izatea espero dugu.

Zer topatu ahalko du entzuleak diskoan?

Errepertorio guztia musika tradizionala da. Abestietako asko ez dira oso ezagunak, kantutegi edota artxiboetatik berreskuratu ditugulako. Kanta horietako asko jada ez dira jotzen. Taldearen helburua da abesti folkloriko horiek berreskuratzea, ahanzturan erori ez daitezen.

Errepertorioaren beste zati bat apur bat ezagunagoa da, baina dena oinarritzen da folklorean. Kantu asko Euskal Herrikoak dira, gu hemengoak garelako. Erritmo tradizional asko nahastu ditugu: Euskal Herrikoak, Afrikakoak, Kubakoak... toki horietako instrumentuak hartu eta hemengo panderoekin uztartu ditugu. Taldekide bat aditua da Mediterraneoko hari-pultsatua jotzean, adibidez. Laburbilduz: Iberiar Penintsulako kantak bildu ditugu, Euskal Herrikoak batez ere, eta beste folklore batzuekin uztartu ditugu.

> “Zaila izan da horren lengoaia musikal ezberdinetako pertsonak batzea, baina lortu dugu elkarrekin bide bat osatzea”

Ikerketa lan handia egin duzue, beraz.

Hori da. Azkue Fundazioaren artxiboan egon gara, adibidez. Urueñan ere egon gara, Joaquin Diazen artxibategian. Hala ere, ez gara horretara mugatu, taldearentzako konponketa eta konposizio propioak ere egin ditugulako. Jada existitzen diren melodien gainekoak dira gehienak, baina badaude taldearen konposaketa propioak ere.

Erritmoaz arduratzen zara zu. Nondik datorkizu musika tradizionalarekiko interesa?

Musika afro-kubatarra jotzen hasi nintzen ni. Hortik abiatuta, toki askotako folklorea interesatzen hasi zitzaidan. Bide hori hartu nuen. Beste artista eta folklorista batzuen lana ikusi nuen eta oso jardun interesgarria iruditu zitzaidan, abestiak topatu eta berreskuratzearena, tradizioa

galdu ez dadin. Asko interesatzen zitzaidan Iberiar Penintsulan dagoen ondarea, eta baita hemengo, penintsulako eta Kubako kulturen artean dagoen hartuemana ere.

Afrikako perkusioa ere ikasten ari naiz, eta nire irakaslea ere taldearen parte da, eta kultura hori irakatsi dit. Guztiaren arteko nahasketa bat izan da Kuttune proiektua.

Musikari asko batu zarete proiektuan.

Bai, oso musikari ezberdinak gara. Batzuk perkusioaren munduan murgilduta gaude, baina badaude baita beste musika estilo batzuetatik datozen kideak ere: jazza, musika klasikoa... batzuk partiturekin lan egiten dute lan, eta beste batzuk ez.

Hamar kide gara guztira. Jon Andoni Perez musika afrikar irakaslea da. Aritz Mugartegik hari pultsatuko instrumentuak menperatzen ditu, taldeko ahotsetako bat da eta euskal zein iberiar perkusio instrumentuak jotzen ditu. Jordi Arcusak baxua jotzen du, Tania Lozak piano klasikoa, Irene Gilek txirula eta Aingeru Torrek saxofoia. Pablo Davilak, berriz, klarinetea gehitu dio bandari, eta duela gutxi hasi da alboka ikasten, eta abesti konplexuak atontzeko gai da dagoeneko, izugarria da.

> ***"Abestietako asko ez dira oso ezagunak, kantutegi edota artxiboetatik berreskuratu ditugulako"***

Amaia Arrieta da abeslaria. Rock talde batean kantatzen zuen, bertan ezagutu nuen. Soul eta gospela ditu gogoko batez ere. Nik perkusioa jo, konponketak prestatu eta abestu egiten dut.

Zaila izan da horren musika hizkuntza ezberdinetako pertsonak batzea, baina lortu egin dugu elkarrekin bidea osatzea. Taldearen beste berezitasun bat izango da hori, oso arlo ezberdinetako kideez osatua egotea.

> ***"Zuzeneko bat izango balitz bezala grabatuko dugu diskoa, denak batera joz"***

Hau da zure lehen proiektu propioa?

Guztiak egon gara hainbat proiektutan. Ni perkusio klasikotik nator, eta hainbat orkestra eta taldetan egon naiz. Orain hemengo folklorean eta musika afro-kubatarrean murgildu naiz. Hau da nire lehen proiektu propioa konposizio eta konponketei dagokionez, baina pila bat proiektutan egon naiz.

Baduzue kontzerturik eskaintzeko asmorik?

Diskoa zuzeneko bat izango balitz bezala grabatuko dugu, denak batera jota. Natural entzutea nahi dugu, kontzertu bat izango balitz bezala. Horregatik, ez da alde askorik egongo grabaketaren eta zuzeneko baten artean.

Proiektua ahal bezain beste zabaldu nahi dugu. Bira bat egin, sortzen diren kontzertu guztiak gozatuz.











Hamar musikarik osatzen dute Kuttune proiektua. **Kuttune**

erreportajea

Mendilerroko eskubideak, bide arantzatsua Urduñarentzat



Behiak 'Dehesa de Agua' mendian, antzinako argazki batean. **Indalecio Ojanguren**

Hainbat mendeetan zehar elkarrekin aritu ziren Urduñako eta Villalba de Losako abeltzainak Gorobel mendilerroko Burgosko aldean dauden lurretan, 1950eko hamarkadara arte. Ordutik hona egondako prozesu judizialen nondik norakoak laburbildu ditu Jesus Mari Garayo soziologoak.



Testua **Jesus Mari Garayo Urruela**

Burgos probintziako Onura Publikoko Mendien Katalogoan (1901), Urduñak eta Villalba de Losak partekatzen duten mendilerroaren eremua hiru menditan banatu zen, esleipen anbiguo batekin jabetzari dagokionez: 'Dehesa del Agua', 'Los Valles' eta 'Auzalon'. Horrela zehaztu zen toki horien jabetza, hurrenez hurren: 'Villalba eta beste batzuk', 'Villaba' eta 'Villaba eta Murita'.

Alde guztien artean hitzartutako betearazte-gutunetan eta akordioetan ezarritakoaren aurka, Urduña, Murita, Mijala eta Zaballa ez ziren espresuki agertu 'Dehesa del Agua' eta 'Los Valles' mendietarako esleitutako jabetzetan.

Mendi publikoen deklarazioak ez zuen inolako aldaketarik ekarri mendilerroaren jabetza-erregimenari dagokionez, eta hala geratu zen XX. mendeko lehen sei hamarkadetan, zeintzuetan Villalbak eta Urduñak batera eta modu baketsuan erabili zituzten 'Dehesa del Agua' eta 'Los Valles' mendietako aprobetxamenduak. Onura publikoko mendien arloko baso-legediak, ordea, jabetza-presuntzioa bermatzen du onura publikoko mendien katalogo probintzialean agertzen diren erakundeentzat. Bertan zehazten denez, titular gisa agertzen diren herriek bide zibila baliatu behar dute beste herri batzuen jabetza partekatuaren aitortza ukatu nahi badute.

Horixe izan zen, hain zuzen ere, Urduñak 1959an bizi izan zuen egoera. Villabak uko egin zion hiria jabekide gisa aitortzeari, baso-legediaren neurrigabeko interpretazio bat eginez.

XX. mendeko lehen sei hamardetan Villabak eta Urduñak batera eta modu baketsuan erabili zituzten mendiak

Espedientea galtzea

Villalba, Murita, Mijala eta Zaballak 1955eko urriaren 30ean egin zuten 1955-1960ko bosturtekorako larreen enkantearen esleipena, Urduñako Udalaren baimenik eta ezagutzarik gabe. Lau herri horiek 'Dehesa del Agua' mendia birpopulatzeko kontratua sinatu zuten Baso Ondarearekin 1955eko martxoaren 11n, eta horren ostean etorri zen jokabide aldaketa.

Enkantearen deuseztapena notario bidez erreklamatzeko eta lehentasunez erosteko eskubidea egikaritzeko saiakerek huts egin zuten, indarrean zeuden lege-preskripzioek Urduña mendiaren jabe den erakunde gisa onartzen zuten arren. Horren ondorioz, 1959ko maiatzaren 21ean, Urduñak helegitea jarri zuen administrazio-

bidetik, larreen enkantearen behin betiko esleipena baliogabetzeko.

Aldi berean, zorrak eta eskubide errealak inskribatzeko eta erregistratzeko espedientea izapidetu zuen, baso-legedian Onura Publikoko Mendien kasurako ezarritakoaren arabera. Honakoa eskatu zuen: 'Dehesa del Agua' mendiaren jabekidetzaren aitortza, mendilerroko lurzoru-aprobetxamenduen jabekidetza aitortzea eta Recuento mendiko zuhaitzen gaineko eskubide esklusiboa ematea.

Nekazaritza Ministerioak 1961eko martxoaren 15an plazaratutako aginduak ondorioztatu zuen agerian geratu zela 'Dehesa del Agua' mendiko larreak eta urak ia 50 urtez ustiatu zituztela bizilagunek,Villalba de Losaren eta inguruko herrixken baimenarekin. Hori dela eta, gunea Burgosko Probintziako Onura Publikoko Mendien Katalogoan erregistratzea eta jasotzea agindu zuen ministerioak. Agindu horren ondorioz, gobernu-bidea agortu zen Urduñako Udalak egindako eskaeran ebatzi gabeko gaiei dagokienez.

Villalba, Murita, Mijala eta Zaballak Urduñako Udalaren baimenik eta ezagutzarik gabe egin zuten larreen enkantearen esleipena


Villalba de Losa, Murita, Mijala eta Zaballako Administrazio Batzarrek helegitea jarri zuten Nekazaritza Ministerioaren aginduaren aurka, baso-administrazioak espedientea izapidetzean prozedura akats bat egin zuela argudiatuz. 1963ko ekainaren 11ko epaiaren bidez, Auzitegi Gorenak helegitea onartu zuen, eta Burgosko Baso Barrutiari agindu zion entzunaldi-izapidean egindako bazterketa zuzentzeko eta espedientearen instrukzioarekin jarraitzeko beste ebazpen bat eman arte. Hurrengo urteetan Burgosko Baso Barrutiak ez zuen Auzitegi Gorenak agindutako lana egin, Urduñako Udalak hura betearazteko kudeaketak egin zituen arren. 1964ko irailaren 12an, Bizkaiko Baso Barrutiko ingeniari buruak Urduñari jakinarazi zion antzeko eskumena zuen Burgoseko erakundeak 1960an hasitako espedientea galdu zuela jakinarazi ziola.

Urduñak mendilerroan dituen eskubideak berreskuratzea lehentasunezko gaia izan zen egungo aro demokratikoko lehen udalaren agendan. Al-

Urduñak mendilerroan dituen eskubideak berreskuratzea lehentasunezko gaia izan zen egungo aro demokratikoko lehen udalaren agendan


kateak, 1981eko apirilaren 5an sinatutako idazki baten bidez, 1963ko ekainaren 11ko epaia betearazteko eskatu zion Nekazaritza eta Arrantza ministroari. Urte bereko maiatzaren 2an, mendilerroko larreeskubideak baliatzeko asmoaren jakinarazpena bidali zion posta ziurtatu bidez Villaba de Losako Administrazio Batzarreko lehendakariari. Maiatzaren 11n, udalak Nekazaritza eta Arrantza ministroari bidalitako idazkiaren kopia helarazi zion ICONAko ingeniari buruari. Tokiko erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Fernando Garrido Falla abokatua kontratatu zuten Nekazaritza Ministerioaren aurrean beharrezko izapideak egiteko, Auzitegi Gorenaren 1963ko ekainaren 11ko epaiak Baso Barrutiari agindutakoaren betearazpena eskatzeko.

1982ko martxoaren 27ko idazkian, ICONAko Probintzia Zerbitzuko buruak Urduñako Udalari helarazi zion espedientearen jarraipena hasi zela, Auzitegi Gorenaren epaiak erabakitakoaren arabera, eta jakinarazi zion frogak aurkezteko









Mendietako aprobetxamenduek mugak erakusten dituzten argazkiak. **Fondo Documental del Monte. Repoblaciones Forestales**

erreportajea

eta alegazioak egiteko epea ireki zela.

Administrazio-espedientea galtzearen ondorioz,espedientea berriz izapidetzen hasi zen ICONA, Burgosko Probintziako Aldizkari Ofizialean 1983ko ekainaren 4an argitaratutako iragarki baten bidez. Iragarki horrekin, Urduñako Udalari hogeita hamar eguneko epea eman zion espedientea aztertzeko eta galdutako informazioa aurkezteko, edo bere interesak defendatzeko beharrezkotzat jotzen zituen datuak aurkezteko.

1983ko uztailean, udal-ordezkaritza bat ICONAren bulegoetara joan zen, artxiboetan gordetako dokumentazioa entregatzera. Agiri horrek egiaztatzen duenez, espediente berria 1983ko azaroaren 11n eratu zen formalki. Eredu autonomikoaren eraikuntzak etenaldi berri bat ekarri zuen. Gaztela eta Leongo Juntako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Sailak 1986/01/21eko Aginduaren bidez amaitu zuen espedientea.

Urduñak espediente administratiboa berraktibatzea lortu zuen, baina horren ebazpena honetara mugatu zen: udalerri bizkaitarra auzitegi arrunten aurrean aldarrikapenak aurkeztera bidaltzera, 1961eko martxoaren 15eko ministro-aginduaren edukiei buruzko ebazpen administratiborik egin gabe.



Behi batzuk Gorobelgo iturri batetik edaten, artxibo irudi batean. **Aiaraldea.eus**

Erreklamazioa, trabatuta

1998ko maiatzaren 13an, Urduñako Udalak, Larruazabalgo Administrazio Batzarrak eta Bedarbide abeltzain elkarteak beste eskakizun bat aurkeztu zuten mendilerroko eskubideak erreklamatzeko. Baina Urduña bide zibilera igorri zuten berriz. Auzitegi Gorenak, 2008ko abenduaren 3ko epaiaren bidez, 1999ko agindua baliogabetu zuen, eta, prozedurako akats formalak zirela-eta, espedientea berriz berritzea agindu zuen.

Ondorengo ebazpen administratiboek eta judizialek, 2012an administrazioarekiko auzien bidetik emandako azkena barne, berriz adierazi zuten bide zibila zela gaia ebazteko eremu egokia.

Eskubideak auzitegietan bide zibiletik defendatzeari dagokionez, Urduñak ikusi du Burgosko Probintzia Auzitegian 114/2015 auto-zenbakiarekin hasitako erreklamazioa baztertu egin zela preskribitua zegoela argudiatuta, nahiz eta gai hori 1961etik hona bizirik jarraitzen duela kontsideratu daitekeen. Lehen instantziako 1/2016 zenbakidun epaiak, 2016ko urtarrilaren 11koak, urduñarren aldarrikapenen aurkako ebazpena eman zuen. Ez zuen denbora zenbaketa zehaztu, nahiz eta horretan oinarritu zen preskripzioaren legezko figura aplikatzeko behar diren hogei urteak zehazteko.

Urduñak mendilerroko eskubideen defentsan egindako urratsak blokeatu egin dira, akats administratiboak eta prozedurazko edukia duten erabaki judizialak medio

Bigarren instantziako 196 zenbakidun epaiaren bidez, 2018ko maiatzaren 31n, Burgosko Probintzia Auzitegiak aitortu zuen mendilerroko lurzoruan eta hegalean ustiapen amankomunak erabiltzen zirela XX. mendearen erdialdera arte, baina argudiatu zuen mendilerroko gailurretako Urduñaren eskubideak preskribatuta zeudela.

Auzitegi Gorenaren 1963ko ekainaren 11ko epaiaren eta ICONAko aholkulari teknikoak 1983ko azaroaren 17an emandako txostenaren artean igarotako hogei urteetan oinarrituta egin zen ebaluazio hori. Aholkulari teknikoaren txostena, Administrazioak hasitako bigarren espedientea amaitzeko egin zen, lehenengoa galdu ondoren. Denbora kalkulua baieztapen kategoriko honekin indartu zen: 1963an Auzitegi Gorenak Nekazaritza Ministerioaren 1961eko Agindua baliogabetu ostean, Urduñak "ez zuen ezer egin mendia erabiltzeko, ezta administrazio-espedientea berraktibatzeko ere".

Denbora tartearen zenbaketa ofizioz egin zen. Urduñari ez zitzaion aukerarik eman alegazioak egiteko eta 1983. urtea baino lehen egindako jarduketak egiaztatzeko, baso-administrazioari Auzitegi Gorenak 1963an agindutakoa betetzera behartzeko egindakoak.

Auzitegi Gorenaren erabakia

Auzitegi Gorenak, 2020ko azaroaren 4ko erabakiaren bidez, bertan behera utzi zuen kasazio-errekurtsoa, teknika juridikoko kontuak argudiatuta.

Epaileek interpretatu zuten apelazioak ez zuela kasazio-interesik, alde demandatzailea -Urduña- larreen jabekidetzari lotutako jurisprudentzian oinarritu zelako. Baina Urduñak aurkeztutako erreklamazioa basoko aprobetxamenduen zor bati buruzkoa zen. Arrazoi formalengatik errekurtsoa ez onartzeak, ordea, berretsi egin zuen 2018ko maiatzaren 31ko epaiaren legezko baliozkotasuna.

Zuzenbidearen printzipioak alde batera utzita eman zen epai hori, eduki juridikoaren muina gertakari desitxuratu eta faltsuetan oinarritzen delako. Nire ustez, datu hori kontuan hartzeko modukoa zen eta arrazoi nahikoa zen prozesuaren errepikapena eskatzeko, ahozko ikustalditik aurrera.

Laburbilduz: Urduñak mendilerroko eskubideen defentsan egindako urratsak blokeatu egin dira, akats administratiboak eta prozedurazko edukia duten erabaki judizialak medio. Hala ere, Urduñari oraindik aukera geratzen zaio aprobetxamenduen jabekidetza partekatua erreklamatzeko, eta gai hori ez da preskribatzen, onura publikoko mendiak direlako.

argazki erreportajea

Gustavo Abascalek Arrastariako txangoetan ikusitako animalien kronika plazaratu du Naturayala blogean. Nerbioiko ur jaiotzaren inguruetan bildutako hegaztietako batzuk jaso ditu argazkitan, animali horiei buruzko hainbat daturekin batera.

Nerbioiko jaiotza eta Arrastaria, hegaztien bilgune



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Elur egunetan Nerbioiko jaiotzara joatea bururatu zitzaion Gustavo Abascali, Bagate gaina zeharkatuta (721 metro). Urduñako Barrerilla portua igota, Untzara heldu baino lehen hartzen da ibilbidea.

Arrastaria, hegaztien harrobi

Partzelen arteko ibilbide asko ditu Arrastariak. Horien adibide dira Artomañana edo Delika lotzen dituzten bideak. Bertako zelaietan abere, hegazti eta intsektu ugari topa daitezke, mahasti eta arto zelaiz inguratuta. "Paisaia landa eremuko nukleo txikiek borobiltzen dute, Delika edo Aloria herriek, ete Nerbioi ibaiak haran osoa zeharkatzen du".

Pasaien mosaiko anitzak "biodibertsitate aberatsa" aitortzen dio lurrari zenbait urtarotan, Naturayalakoen esanetan. Neguan, adibidez, zelai horietan hartzen dute babes hegazti migratzaile ugarik. Zerrendaren lagin bat plazaratu dute Naturayala blogean: arabazozo pikarta, zuhandor beltzak, kardantxiloak, etxe-txolarreak... "Hala ere, bestelako hegazti batzuk ere presente daude, kopuru txikiagoan bada ere: txepetxak, txantxangorriak, zozoak, buztangorri ilunak, lapur-txoriak, birigarro arruntak edota hesi burdantzak", zehaztu du Abascalek. Horietako batzuk jaso ditu iruditan webgunean erakusgai jartzeko.

Naturayalako kidearen esanetan, harrapakariek oso ondo ezagutzen dituzte hegaztien babesguneak, eta ehizan dabiltza beti. Izan ere, eskura dituzte gabiraiak, belatzak eta abar. Lehen eskutik konprobatua du Abascalek hori: "Nerbioi ibaiaren jaiotzatik gertu, makal batean fijatu nintzen, eta 20 bat mirugorri ikusi nituen adarretan atseden hartzen. Batzuk hegan egitera zihoazen beste batzuk posteetan atseden hartzen zuten bitartean", kontatu du. Urduñako Santa Klara konbentuan edota Foru plazan ere ohikoa da zikoinak ikustea.

Turismoa, mehatxu

Elur paisaiarekin osatu zuen txangoa Gustavo Abascalek, "Nerbioiko jaiotzaren ingurua Gorobelgo Hegaztien Babesgune Berezia da, Natura Sarea 2000 egitasmoak hala aitortzen baitu bere zenbait gune interes ornitologikodunak direlako". Sai arreak esaterako, askotan begista daitezke hegaka.

Turismoaren gorakada dela eta, ingurumenarekiko kezka agertu du blogeko idazleak: "Horrenbeste jende gerturatzeak babestu beharreko espezieak kaltetzen ditu". Santiago menditik Nerbioiko jaiotzara gerturatzeko ibilbidea oso errotua dago, baina Untzagatik seinalezatu duten ibilbidea ere gero eta ospe gehiago ari da hartzen, "elur egunetan ere harritzekoa da zenbat jenderekin egin dezakezun topo".

Hori dela eta, babes edo zaintza eremuak mugatzearen garrantzia azpimarratu du Abascalek, "turismoa eta zaintzea uztartzeko, Cies uharteetan bezala".









kirola

Berdintasuna kirolean, zelai zatitua



Okondoko Kultura Etxean izan zen soladaldia, urtarrilaren 14an. **Aiaraldea.eus**

Okondoko emakume kirolariekin solasaldia antolatu zuen Udalak urtarrilaren 14an Kultura Etxean. Olaia Otaola triatleta eta futbolari ohiak, eta Geraxane Ussia atletak euren bizipenak eta gogoetak partekatu zituzten.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Emakume izateak baldintzatzen al du kirol jarduna? Eta kirol munduaren egungo egiturak, emakumeen bizitza? Okondoko emakume kirolariekin hitzaldia eskaini zuen Udalak hilaren 14an. Geraxane Ussia korrikalaria eta Olaia Otaola futbolaria aritu ziren hizlari, Aiaraldea Komunikabideak gidatutako solasaldian. Herri berean bizi izanagatik, bizipen eta ikuspegi ezberdinak azaleratu zituzten bi kirolariek.

Geraxane Ussia 8 urterekin hasi zen kirola egiten. Krosarekin ekin zion, eta abiadura probetan zentratu zen gero, "gustukoago nuen eta emaitza hobeak lortzen nituen". 16 urterekin hasi zen goi mailan lehiatzen, Espainiako federazioarekin: "Ibilbide luzea egin dut. 2016. urtea izan zen onena niretzat: Europako txapelketan izan nintzen, eta Brasilen aurreolinpiada probetan postu batengatik ez nuen lortu Olinpiadetarako sailkatzea. Erreleboka Espainiako marka haustea ere lortu genuen kasik... Urte berezia izan zen niretzat". Atletismoa oso onuragarria izan zaio, horregatik, 35 urterekin jarraitzea erabaki du, amatasunagatik geldialdia burutu eta gero. "Ez dut helburu gisa datarik, baina udako pista eta lasterketetan lehiatu nahiko nuke".

Olaia Otaola, aldiz, kirol gehiagotan aritua da: karatea, hockeya eta futbola uztartu ditu orain arte. Egun, baina, triatloirako prestatzen ari da: "Nik batez ere kirola praktikatzen gozatzen dut. 2015ean, Ugaoko futbol taldean nenbilela, lorpen asko eskuratu genituen, Euskal Ligara igotzea kasu". Aurrez, Amurrioko Kaskagorri taldean aritu zen Otaola, "guk sortu genuen Amurrioko nesken taldea". Koronabirusak eragindako pandemiak, ordea, nabarmen baldintzatu du bere jarduna. Horregatik erabaki zuen triatloia frogatzea, aspalditik zuen gogoa eta. Martxoan izango du bere lehen debuta, "birusak eman dit behar nuen bultzada triatloian sartzeko. Futbolean irailean beharrean orain hasiko dira entrenatzen, martxoan hasiko da denboraldia".

Kirolean berdintasuna lortzeko emandako pausoak eta falta direnak aipatu zituzten bi kirolariek, besteak beste

Gaztaroan eta ikasketa garaian, emakume askok uzten dute kirola kolektiboki praktikatzeari. Otaola eta Ussiaren

kasua ez da hori izan: biek jarraitu dute lehiatzen. "Nire kasuan ikasketak, lana eta kirola uztartu izan ditut", adierazi du Geraxane Ussiak. Kirolak askatasuna eman dio Olaia Otaolari, erantsi duenez: "Nire kasuan, ikasketa garaian emozioak eta egoerak kudeatzen lagundu dit kirolak, azterketekin agobiatuta nengoenean batez ere. Nire buruak klik egiten zuen eta etxeratzean lasaiago nengoen, hobeto ikasten nuen".

Parekidetasunik ba al dago kirol munduan? Praktikaren arabera, ezberdina da egoera. "Lehen sariak ezberdinak ziren, baina orain ia berdin gaude", zehaztu du ussiak. Futbolean, aldiz, balantza desorekatua dago: "Amurrion, adibidez, nesken taldea guk sortu genuen, eta beti sentitu gara baztertuta. Euskal Ligara igo ginenean ere, ekonomikoki dirua galtzen nenbilela sentitzen nuen. Ziurrenik, gizonezkoa banintz, dirua irabazten nengoke".

Edozelan ere, kirolak asko eman die biei. Geraxane Ussiari "bizitza" piztu dio: "Egunero joaten nintzen Durangora entrenatzen, astean 5-6 egunez. Momentu on eta txar guztiak oso positiboak izan dira, asko ikasi eta lortu dut". Bat dator Olaia Otaola ere, "bizimodua da azkenean, eta asko laguntzen du".

Oso bizipen ezberdinak plazaratu zituzten Okondoko bi bizilagunek. Olaia Otaolak fubolean emakume izateagatik pairatutako desberdintasun guztiak nabarmendu zituen. Geraxane Ussiak, aldiz, atletismo mundua parekideagoa dela azaldu zuen

Eta kendu? Zer galdu dute emakume kirolari izateagatik? "Plan asko sakrifikatu ditut", dio Ussiak, "lan eskaintzak eta oporrak utzi behar izan ditut lasterketa edo kontzentrazioengatik. Hala ere, hori banekien, eta sakrifizio horrek handitu egin nau, positiboki bizi izan dut". Partiden ordutegi "desaproposak" ditu gogoan Otaolak zentzu horretan, "planak eta bidaia aukerak asko mugatzen ditu. Dena den, azkenean, lortzen dena hain da handia ez duzula horretan pentsatzen, onura gehiago ditu galerak baino".

Okondon bizi dira bi kirolariak. Azpiegitura eta baliabide eza dira beraien arazo nagusia kirolari moduan. "Kirola egin nahi duenak beste herrietara mugitu behar du", azpimarratu du Ussiak. Okondon kirola eskolaz kanpoko ekintzetan sustatzeko beharra nabarmendu dute biek ala biek, nahiz eta azken urteetan kirol jarduera eta frogak ugaritu diren udalerrian.

Sexu bereizketak

Generoak kirol praktika bereizten al du? Sariak, frogak eta diru-laguntzak orekatuta daude atletismoan Ussiaren iritziz. "Emakume izateagatik ez naute inoiz baztertu". Futbolaren bestelako egoera bizi dute, Otaolaren esanetan: "Duela gutxi greba egin zuten goi mailako emakume futbolariek lan hitzarmena duintzeko, eta zerbait lortu zuten, gutxienekoa bada ere. Suposatzen da orain -etorkizunean- Gizarte Segurantzan kotizatuko dutela". 30 urterekin futbola uzten duen emakume jokalariaren kasua jarri zuen mahaigainean Otaolak: "400 euro baino ez dituzu jasotzen, bizitza osoa goi mailan lehiatzen eman ostean, ikasten eta beste lanekin uztartzen, miseria bat kotizatzen, edo egunero birritan entrenatzeko esfotzu oso handia egiten". Aldiz, gizonezkoa balitz Otaolak garbi du sekulako dirutza jasoko luketela lan beragatik.

Hedabideetan emakumeen kirol emaitzak pixkanaka agertzen ari direla-eta, baikor daude biak, "agian 100 urte barru trataeran berdintasuna ikusiko dugu". Zehaztu zutenez, sariak eta aitortzak aurrera egiten laguntzen dute, motibazio aldetik nagusiki. Erreferenteez galdetuta, ostera, ez dute ez batak ez besteak eredurik jarraitu.

Bestalde, emakume kirolariak gehiago izateko, txikitatik jasotako heziketa jarri behar da kolokan Otaolaren ustetan: "Alua izateagatik jolas edo kirol batzuetara bideratzen gaituzte txikitatik; normalean psikomotrizitate aldetik mugatuak direnak. Hezkuntza sistemako eta familiako heziketa aldatu behar dira". Kirola praktikatzearen garrantzian egin zuen azpimarra Ussiak: "Mugitzea osasuna da gorputzarentzat eta buruarentzat. Ahal duzuen heinean kirola probatu edo egin". Horretarako baliabide berak eskaini eta bermatu beharko lirateke, Otaolaren aburuz.

Norberaren kirol jardunetik begirada altxatuta, parekidetasuna lortzeko gakoekin itxi zuten Okondoko solasaldia: "Hezkidetzatik sustatu behar da kirola. Aukera berdinak eskaini behar dira umetatik eskolan zein hortik kanpo. Horrez gain, ikusgarritasuna inportantea da: umeek bere inguruko kirolariak ezagutzea, eta erreferente gisa emakumeak ere izatea. Horrekin batera, etxean ere haurrak kirola egitera bideratzea lagungarria izan daiteke". Berdintasunaren joko-zelaian, jauzi berriak beharrezko direnaren adierazle.





Aiaraldea Hedabideak zuzenean emititu zuen solasaldia. Aiaraldea.eus atarian dago bideo osoa ikusgai. **Aiaraldea.eus**

kirola

ATLETISMOA

Hamaika domina lortu dituzte Laudio Atletismo taldeko kirolariek Arabako txapelketetan



Partaideetako batzuk, lehiatzeko zain. **Laudio Atletismo Taldea**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Bi asteburutan luzatu dira norgehiagokak. Laudio Atletismo Taldeko 20 kidek hartu dute parte guztira lasterketetan

Arabako pista txapelketa jokatu zen iragan astean Gasteizen. Abiaduran espezializatutako lasterkariek hartu zuten parte lehenbiziko asteburuan, eta asteburu honetan izan da aire libreko eta fondo iraupeneko lehiakideen txanda. 11 domina etxeratu dituzte guztira.

Laudio Atletismo Taldeak goraipatu duenez, oso lan txukuna egin dute kadete, gazte eta junior kategorietako ordezkariek, "bai estreinatu zirenek eta baita esperientziadunek ere".

Hala, lau domina etxeratu zituzten 200 metro, 1.500 metro eta 300 metroko modalitateetan: zilarrezko domina lortu zuen Besaide Astobizak, Koldo Ayestak, Naia Lasok eta Naiane Bravok. Horrez gain, brontzezko domina eskuratu zuten Ane Lopezek eta Peio Gomezek.

Ondorengoak izan dira pista estalian lehiatu ziren kideak: Aiara Larrazabal, Oihane Ofogo, Ixone Barroso, Ane Lopez, Onintze Rodrigez eta Naiane Bravo.

Aire librean, berriz, hurrengoek jardun zuten: Peio Gomez -800 metrotan-, Naiane Bravo -200 metrotan- eta Ane Lopez -1.500 metrotan-. Besaide Astobiza, Naia Laso, Egoi Laso, Tomas Laso, Koldo Ayesta, Luken Lopez, Unai Garcia, Galder Hernandez, Josu Apraiz, Iñaki Galindez eta Endika Arrazuria, aldiz, 3.000 metroko kategorian neurtu ziren.

Beste bost domina

Gainera, klubeko presidente Alberto Talledok azaldu duenez, 3 zilarrezko domina eta brontzezko 2 jaso zituzten igandeko norgehiagokan.

Ildo beretik jarraituko dute lanean aurrerantzean ere: "Eskerrik asko zuen ahaleginagatik eta jarrai dezagun hazten!".

AMURRIOKO ELUR TALDEA

"Ez dugu uste eski estazioetara joateko aukera izango dugunik"

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

"Ez dugu egutegirik egin, ezin gara hemendik atera, eta ez dugu uste elur estazioetara bertaratzerik izango dugunik". Amurrioko Elur taldeko Jon Aspururen hitzak dira, COVID-19 pandemiak euren jarduna bete-betean mugatu du eta.

Iazko txangoak ere eten zizkien osasun eta krisi ekonomikoa eragin duen gaitzak: "Denboraldia erdian moztu zitzaigun, eta aurten ezin izan dugu ezer egin. Egoera nahiko larria da".

Ohikoan, abendutik martxoa edo apirila arte antolatzen dituzte eski estazioetara irteerak. "Aktibitate gabe gaude", ohartarazi du ordezkariak.

Osasun krisiak ez ezik, egoera ekonomikoak ere baldintzatu du Elur taldearen geroa. Izan ere, diru-laguntza nabarmen txikitu zaie. Aspururen hitzetan, duela zenbait urte Amurrioko Udalaren aldetik 3.000€ jasotzen zituzten, baina 2007an, krisi ekonomikoagatik, 1.000 eurora jaitsi zuen tokiko erakundeak dirupartida. "Ulertzen dugu murrizketetan gu izatea lehenengoak, baina 2019an 700€ eman zizkiguten, eta iaz 300€. Haserre gaude udalarekin", azpimarratu du.

Hori dela eta, kolokan dago elkartearen etorkizuna: "Aurten dudan gaude diru-laguntzak aurkeztu edo ez. Teknikariaren erantzunaren arabera baloratuko dugu elkartea Amurrion mantenduko dugun".



Eskiatzera joateko irteerak antolatu ohi ditu Elur taldeak. **Elur taldea**

IRRISTAKETA

Entrenamenduei ekin diete Lautxirrinka klubeko kideek

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Entrenamenduei berrekin die Laudioko Lautxirrinka taldeak. Aldai Plazako kirol zelaian hasi zituzten atzo lan-saioak. Horrekin batera, kirol ekipamendu berria ere estreinatu zuten. LABI aholkularitza batzordeak urtarrilaren 13an plazaratutako neurri berriek eskola-kirola baimendu dute, eta lanari ekin diote klubeko partaideek.

Martxoan, COVID-19 birusak eragindako pandemiak zeharo gelditu zuen irristaketa klubaren jarduna, eta irailean entrenamenduak hasi behar zirenean eskola kirola etenda aurkitu zuten Lautxirrinkako kideek. Entrenatzeko espazio bila ibili dira iraileti gaur arte.

Ohikoan, Gardeako kirol-gunean egiten ditu entrenamendu saioak Lautxirrinka elkarteak, baina bertako tenis pistako obrek ezinezko egin dute azpiegitura erabiltzea. Laudioko Institutuko frontoian galarazi izan diete entrenatzea, Eusko Jaurlaritzak ez baitu eskolaz kanpoko jarduerak eskola eremuan praktikatzea baimentzen.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 10ean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Adele

Zorionak Adele!!!! Zure gurasoen eta zure ahizparen partez, asko maite zaitugu.

Familia



Ekaitz

Zorionak Ekaitz! Arhane aita eta amak maite zaitugu! 9 urte!!!

Familia



Edorta

Zorionak Edorta!!!!!! Zure familiaren partez. Asko maite zaitugu.

Familia



Mariñe

Zorionak gure etxeko neskatila nagusiari. Zoragarria zara, asko maite zaitugu!!!

Etxekoak



Ainhize

Zorionak bihotza!!! Zure 8. urtebetetzean izugarri ondo pasatzea opa dizugu. Maite zaitugu!!!

Familia



Garazi

TILLYKKE!! Euskal Herritik kanpo ere ez zara gutaz libratzen! Muxu handi bana, lagunen partez!

Lagunak

Denborapasak

ERRAZA

	3	4		5		8		9
	6	5		2	4			3
		7						5
	8					6		
	5		8	9		2	4	
4		3		7	2	9		8
5	4		2			3		6
6	7			3			8	2
3	9	2		6		7		

ZAILA

	3	9					2	
4		2			3			
8		6	5	2			7	
	5							8
						7	6	3
3	8	4	7	6				
		8	4	3	7	2	5	1
				8		6		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

JARRI ZURE IRAGARKIA *hemen*

ESKUALDEAN
ZABALPEN HANDIENA
DUEN KOMUNIKABIDEA
2 astean behin **10.000 ale** banatzen dira **Aiaraldea osoan**

(Amurrio, Artziniega, Urduña, Laudio, Okondo, Aiara, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo)



Komunikazio kanpaina bat martxan jarri nahi duzu?
Zure produktu, zerbitzu edo ekitaldiak iragarri nahi dituzu?

*Idatzi **publizitatea@aiaraldea.eus** helbidera edo deitu **688 625 394** zenbakira*

IRAKURKETA GUNEA



GAXUXAREN KLARION MAGIKOA

Idazleak: Alvaro eta Oihane Beñaran
Argitaletxea: Hik Hasi
Gaxuxak ezin du lorik egin eta basora doa. Bertan agertzen zaizkio otsoa, monstrua eta beldurra ematen duten hainbat pertsonai. Beldurrak lantzeko ipuin interesgarria da, beldurrak kudeatzen laguntzen ditu haurrak.



EMAKUMEAK, ARRAZA ETA KLASEA

Idazlea: Angela Davis
Argitaletxea: Eskafandra
Adina: 14 urtetik gora
Angela Davis aktibistak, lehenengo aldiz jaso zuen liburu batean emakumeek bizi dituzten hainbat zapalkuntzaren errealitatea. Zapalkuntza hirukoitza jarri zuen mahai gainean.

JOLAS GUNEA

JOLAS PARKEEN ARGAZKIAK

ZER? Jolas parke, berdegune, zure herriko jolasteko gune bat... Jolasteko gustuko duzun edozein gune

AZALPENA: Atera argazki bat zure inguran jolasteko balio duen toki bati eta lekua non dagoen bidali.


Guk hamabostekari honetan publikatuko dugu aldiro aldiro, beste haur eta familiek ere toki horiek ezagutu ditzaten.

BIDALTZEKO: hezkuntza@aiaraldea.eus

Bidaltzen duzuenen artean sari baten zozketan parte hartuko duzue!



TOSTADA



Garai honetan ohikoa da tostadak prestatzea. Goazen ba errezeta ezagutzera!

OSAGAIAK:
- Ogi zaharra
- Esnea
- Arraultzak
- Olioa eta kanela
- Sagar siropea (Azukrea ere izan daiteke)

ERREZETA
1- Jarri esnea sutan 15 minutuz, kanelarekin batera egosi.
2. Esnea plater batera bota eta xaflatan moztutako ogia esne horretan sartu. Zenbat eta denbora gehiago egon esne horretan, orduan eta hobe.
3. Ogi xerrak, aurrez irabiatutako arraultzetik pasatu.
4. Zartagina sutan jarri, olioa isuri eta aurrez prestatutako ogi xerra horiek frijitu.
5- Gainetik kanela eta siropea bota, eta jaten gozatu!

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA


Mugak

Haur baten hezieran bidelagun izateak, presente eta aktibo egotea eskatzen du. Eta hori lan nekeza da. Haurra errespetuz eta maitasunean hezi nahi dugu, askatasunean. Askotan askatasun hau, muga ezarekin nahastu egiten dugularik.

Haurrek behar beharrezkoak dituzte mugak. Badira muga fisikoak, inguruko arkitekturak edo gure herria zelan eraikia izan den mugatzen dutenak. Muga hauek barneratzea oso erraza da jadanik ezarriak daudelako. Zer gertatzen da ordea helduok jarri beharreko mugekin?

Beharrezkoak dira, haurra emozionalki eta zoriontasunean hezteko. Alabaina, muga horiek maitasunez eta enpatiarekin jarri behar dira, eta beharrezkoa den irmotasun guztiarekin. Hau da, limitea ez da oihu batekin jarri behar, baina behin jarrita ezin da egunero aldat. Alegia, muga bat ezartzen denean, ezin da egun bateko kontua izan. Egunero gauza bera dela ulertu behar du haurrak. Horregatik garrantzitsua da muga horiek haur horren heziketaren parte diren heldu guztiek ezagutzea eta adostea. Horrela, koherentziaz jokatuko da haurrarekin.

Garrantzitsua da mugak haurraren hazkuntzaren neurrikoak izatea, ulerkorrak eta, posible bada, haurraren gai horrekiko iritzia entzunda jarriak. Ez ezarri mugarik sari edo zigorrekin, ez eta mehatxuekin ere.




Hauxe Parea


Arrain hauen artetik bi berdin-berdinak dituzu (tira, agian bat bestea baino handiagoa, baina gainontzean berdin-berdinak). Zeintzuk ote dira?

Arrotza


Lerro bakoitzean bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena.



Mezu gordea



Eman beheko irudi bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat osatuko duzu.



Negu gorriko Sudokuak


Osatu lauki zuriak sudoku bakoitzari dagozkion hizkiak kontuan hartuta. Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

NEGU
(N, E, G eta U)

	N		E
		N	
	G		
U		G	

GORRI
(G, O, RR eta I)

O			G
		RR	
	O		
I			RR



SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera


HVL

Rakel Lima Aruda

JAIOTERRIA
BRASIL (1980)

BIZILEKUA
BRASIL

BIDAIAREN ZERGATIA
BIZI KALITATEA HOBETZEA

“Telebistan Brasilen alde ona soilik ikusten dugu, errealitatea bestelakoa da”

Noiz eta zergatik joan zinen Brasiletik?

2004an etorri nintzen, bizi kalitatea hobetzeko. Segurtasuna eta egonkortasuna bilatzen nuen, eta familia laguntzeko dirua. Horregatik egin nuen alde. 24 urte nituen orduan, gaur egun 40 baditut ere. Nire kezka nagusia familiarentzat dirua lortzea izan da beti. Zortekoa izan naiz, ordea. Nik alde egin eta gutxira hartu zuen erretiroa aitak, eta ondorioz, lanarekiko ardura txikitu zait; niretzat egiten dut lan orain.

Nolatan aukeratu zenuen Euskal Herria?

Portugal izan zen nire lehenbiziko geltokia, osaba bat bizi zen bertan eta. Alabaina, mutil bat ezagutu nuen eta maitemindu egin nintzen. Horrela iritsi nintzen Irunera, eta handik Sodupera mugitu ginen gero. Bertan jaio zen gure umea, nahiz eta gaur egun Laudion bizi garen.

Telebistan azaltzen den bezalakoa al da Brasil?

Telebistan Brasilen alde ona soilik ikusten dugu: inauteriak, futbola... Errealitatea, ordea, bestelakoa da: jendea aberatsa edo txiroa da, ez dago erdibiderik. Pobrezia handia dago, eta ez dago inolako segurtasun ez osasun zerbitzu publikorik. Hori da ez itzultzeko nire arrazoi nagusietako bat.

Segurtasun ezaz mintzo zara. Bortxaketak, lapurretak... eguneroko ogia dira?

Bai. Ezinezkoa da han mendira joatea, edo gauez bakarrik ateratzea. Aukera asko dituzu bidean hiltzeko.

Gizonezkoak oso matxistak dira, gehienak. Emakumeok ez dugu hemen adina askatasun. Hemen arropa laburrarekin bazoaz, ez zaituzte jazartzen; Brasilen bai. Ohikoa da kalean emakumeei eskua gorputzean sartzea, hemen errespetu handiagoz jokatzen da hangoaren aldean.

Etorkina eta emakumea izatea zailtasun bikoitza al da hemengo bizimodura egokitzeko?

Hasiera ez da inolaz erraza. Hizkuntza ikasi behar da, hasteko. Kultura ere zeharo desberdina da. Parean topatzen duzun pertsonaren arabera, umiliazio asko jasan behar dituzu.

Denborarekin, baina, kulturara egokitzen zara, eta halako egoerei aurre nola egin ikasten duzu. Nire ustez, denok gara berdinak.

Etorkizunari begira, zein da zure amets edo erronka?

Nire etxe propioa izatea, baina ez badut lortzen ahalik eta ondoen bizi nahiko nuke. Bestalde, nire semeak ikastea gustatuko litzaidake, nik ez dudalako aukerarik izan.

Brasildar ugari dago Aiaraldean. Baduzue zuen artean harremanik edo geratzeko ohiturarik?

Bai, asko gaude. Ahal dugunean geratu egiten gara elkarren berri izateko, nahiz eta COVID-19 birusarekin egoerak zaildu. Herrimina kentzen dugu horrela.

BRASIL



DESKRIBAPENA
Munduko bosgarren herrialde handiena eta populatuena da, baina ez du biztanleria dentsitate handirik. Biztanleria gehiena itsasertzean pilatzen da, eta barrualdeko zonalde askotan ez da jenderik bizi.

AZALERA
8.515.770 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
212,2 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Portugesa da hizkuntza ofiziala, baina beste hainbat hizkuntza indigena hitz egiten dira, ingelesaz eta gazteleraz gain.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio · ausolan · Graf!k Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.com · Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco Kultura eta Hizkuntza Politika Saila